




# Tolosako guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak

2019ko martxo



## Aurkibidea

Sarrera .....	3.
Tolosa: ezaugarri nagusiak .....	4.
Egoera soziolinguistikoa .....	10.
Azterketaren oinarriak .....	21.
Aztergai den unibertsoa .....	25.
<b>1. Ahozko erabilera .....</b>	<b>29.</b>
1.1. Bikotea .....	29.
1.2. Gurasoak .....	34.
1.3. Kuadrilla .....	37.
1.4. Lantokia .....	42.
1.5. Umeak .....	45.
1.6. Gako nagusiak .....	47.
<b>2. Transmisioa .....</b>	<b>50.</b>
2.1. Lehen hizkuntza eta erraztasuna .....	50.
2.2. Transmisioa, genero ikuspegitik .....	52.
2.3. Transmisioaren aurrerapena .....	54.
2.4. Ohituren transmisioa .....	56.
2.5. Arnasguneen eragina .....	58.
2.6. Eskola .....	61.
2.7. Hitz egitea eta irakurtzea .....	61.
<b>3. Hedabideen eta kulturaren kontsumoa .....</b>	<b>63.</b>
3.1. Ikus-entzunezko hedabideak .....	64.
3.2. Papereko hedabideak .....	66.
3.3. Argudioak .....	70.
3.4. Internet .....	72.
3.5. Liburuak .....	73.
3.6. Musika eta ikus-entzunezkoak .....	75.
3.7. Arrazoiak .....	76.
<b>4. Iritzia .....</b>	<b>78.</b>
4.1. Euskaldun pertzepzioa .....	78.
4.2. Euskaraz bizitzea .....	80.
4.3. Arrazoiak .....	82.
4.4. Hizkuntza ohiturak aldatzea .....	85.
4.5. Nondik jo .....	88.
<b>5. Ondorioak eta esku-hartze proposamenak .....</b>	<b>91.</b>
Bibliografia .....	99.

## Sarrera

Tolosako Udalaren enkarguz, Tolosako guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak aztertu ditu Siadeco Ikerketa Elkarteak. Azken hamarkadetan euskararen ezagutza areagotu egin da Tolosan, eta gazteen belaunaldian gertu dago euskararen unibertsalizazioa: ia guztiek dakite euskaraz. Erabilera, ordea, kezka iturri da. Zehazki, aztertu da guraso euskaldunek zer jokabide duten hizkuntzaren erabilerari dagokionez, eta zer dagoen horren oinarrian.

Horretarako, hiru erpineko ikerketa eredu bat landu du Siadecok. Batetik, umeak Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dituzten guraso tolosar euskaldunekin inkesta bat egin du; bestetik, guraso horiekin talde dinamikak egin ditu, datu kualitatiboagoak eskuratzeko; eta hirugarrenik, Tolosan euskararen indarberritzean dabiltzan hainbat adituren iritziak jaso ditu, bildutako datu horiek kontrastatzeko eta osatzeko helburuarekin. Hiru informazio bide horiek uztartu egin dira txosten honetan, aztergaiaren edukia osotasunarekin emate aldera.

Euskararen erabilerari ikuspegi zabaletik erreparatu zaio; alegia, ahozko erabilera ez ezik, aintzat hartu dira transmisioa, hedabideen kontsumoa eta kultura ere, baita guraso euskaldunek euskarari buruz zer iritzi duten ere. Euskararen erabilerak, izan ere, faktore askoren uztarketa du oinarrian, eta ezinbestekoa da horren azterketa ere poliedrikoa izatea.

Kontuan izatekoa da zein den ikerketa honen aztergaia: Tolosako guraso euskaldunak, seme-alabak Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dituztenak. Alegia, ez da herriko egoera orokorrari buruzko diagnostiko bat, ezta oro har gurasoen erabilerari buruzko azterketa bat ere: guraso euskaldunak hartu dira aztergai. Hortaz, jasotako datuak gurasoen multzo bati dagozkio, eta nekez heda daitezke beste guraso multzo batzuetara.


## Tolosa: ezaugarri nagusiak

Ikerketa honen helburua da Tolosako guraso gazte euskaldunen hizkuntza ohiturak aztertzea, baina komeni da udalerrriaren testuingurua kontuan hartzea, gurasoen errealitatea ezin baita huts-hutsean aztertu.

Gipuzkoa barnealdean dago Tolosa, eta eskualde burua da. Beste 27 herrik osatzen dute Tolosaldea. Udalerririk handiena da Tolosa biztanle aldetik —Tolosaldeko hamar biztanletik lau ditu—, eta eskualdearen erdigunea, nabarmen: bai geografikoki, bai soziofuntzionalki. Eskualdeko zerbitzu nagusiak Tolosan zentralizatuta daude.


### Biztanleria

Azken datuen arabera, 19.525 biztanle dauzka Tolosak —2018ko urtarrilaren 1ari dagokio datu hori, udal erroldaren estatistikari—. Ikuspegi demografikotik aldaketa handiak izan zituen Tolosak XX. mendearen erdialdean, Euskal Herriko beste hainbat herrik bezala. 1940tik 1970era, adibidez, %38 hazi zen Tolosako biztanleria. Egonkorrago dago harrezkero, nahiz eta 1980ko hamarkadan beherakadatxo bat izan, eta orain gorakadatxo bat. Izatez, datu estatistikoaren arabera, inoiz baino biztanle gehiago dauzka Tolosak gaur egun.



Iturria: INE, Eustat

Migrazioaren eragina nabaritu da hamarkada hauetan. Batetik, frankismo garaian, Espainiako lurraldeetatik iritsitako gizon-emakumeen migrazioa. Bestetik, azken hamarkadetan, Espainiaz kanpoko beste herrialde batzuetatik iritsitako migratzaileak. Bi fenomenoaren eragina ikusteko, alderaketa bat egin da: 2001eko eta 2018ko biztanleria datuak aztertu dira, Eustatenak, biztanleen jaioterriaren arabera.



Iturria: Eustat

Datu horietan kontuan izan behar da *Beste erkidegoak* atalean sartua dagoela Nafarroa; gainera, atzeritar gisa hartuak daude Lapurditik, Nafarroa Beheretik edo Zuberoatik etorritako biztanleak.

Ñabardura horiek eginda, bistakoa da kanpoan jaiotako biztanleen pisua gero eta handiagoa dela Tolosan: 2001ean %13,7 ziren, eta 2018an, %17,6. Ariketa bera eskualdean eginda, handixeagoa da kanpoan jaiotako biztanleen ehunekoa: %17,9. Espainiako erkidegoetatik iritsitakoaren proportzioa da Tolosan baino handiagoa (%9,5); beste estatu batzuetatik iritsitakoena, berriz, txikiagoa (%8,5). Ariketa bera egin da Uema Udallerri Euskaldunen Mankomunitatean dauden Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herriei dagokienez. Tolosako eta Tolosaldeko datuen aldean, gutxiago dira kanpoan jaiotakoak: %16,6. Espainiatik iritsitakoak dira %8,5 eta beste estatu batzuetakoak %8,1.

Tolosako biztanle gehienak, bostetik lau, Gipuzkoan jaiotakoak dira. Horietatik gehienak, hamarretik sei, Tolosan bertan sortu ziren —2011ko zentsuko informazioa da hori, INE Espainiako Estatistika Institutuarena—. Esan liteke, beraz, Tolosako biztanleen ia

herenak Tolosa ez den Gipuzkoako beste herri batean sortuak direla. Alde horretatik, kontuan izatekoa da herri txikietatik migrazio handia izan zela Tolosara, eta uste izatekoa da horietako asko Tolosaldeko beste herri batzuetan jaioak direla.

Biztanleriaren adin egiturari dagokionez, nabarmena da Tolosako adin talderik handiena 40-60 urte bitarteko herritarrena dela gaur egun. *Baby boom* garaian jaiotako belaunaldia da. Horrekin batera, adierazgarria da 60 urtetik gorako adin taldea ere gero eta jendetsuagoa dela. Beste erpinean, 20 urtetik behera dituzten herritarrak ez dira bostetik batera iristen. Umeen eta gaztetxoek portzentajea txikiagoa izan zen, hala ere, 2000. hamarkadaren hasieran. Hona bien arteko alderaketa, Eustaten datuen bidez:

**1. taula.** Tolosako biztanleria adin taldeen arabera, 2001 eta 2017.

Adin taldea	2001 (%)	2017 (%)
0-19 urte	17,0	19,1
20-39 urte	28,7	21,6
40-59 urte	28,8	30,2
60-79 urte	19,9	21,3
80 urtetik gora	5,6	7,8
Guztira	100,0	100,0

*Iturria: Eustat. Siadecok landua*

Tolosako biztanleriaren egitura hiru aldagairekin alderatu da: eskualdeko, herrialdeko eta Euskal Herriko datuekin. Eskualdeko datuen eta Tolosako artean badira aldeak: ume eta gaztetxo gehiago dago eskualdean, eta 60 urtetik gorako gutxiago.

**2. taula.** Tolosako, Tolosaldeko, Gipuzkoako eta Euskal Herriko biztanleria adin taldeen arabera, 2017.

Adin taldea	Tolosa (%)	Tolosaldea (%)	Gipuzkoa (%)	Euskal Herria (%)
0-19 urte	19,1	20,6	18,4	19,1
20-39 urte	21,6	21,1	21,1	22,4
40-59 urte	30,2	31,2	31,3	31
60-79 urte	21,3	20,3	21,5	20,5
80 urtetik gora	7,8	6,9	7,7	7,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0


*Iturria: Eustat eta Datuak.eus. Siadecok landua.*

## Hezkuntza

Euskara indarberritzeko bidean ezinbesteko ekarpena egin du eskolak, eta Tolosan ere aurrerapena nabaria izan da hamarkada hauetan. Oinarrizko hezkuntzari dagokionez, gaur egun ikasle guzti-guztiak ari dira euskarazko D ereduan. Eustaten datuen arabera, izan ere, 2004-2005eko ikasturteaz geroztik eskaintza osoa da euskarazkoa.

### 3. Grafikoa

Hizkuntza ereduen eboluzioa Tolosako oinarrizko hezkuntzan (%)




Iturria: Eustat, Siadecok landua.

Batxilergoaren kasuan ere nabarmenagoa da eboluzioa, kontuan hartuta 1983-1984ko ikasturtean ia lautik hiruk erdaraz egiten zutela. Gaur egun, guztiek euskaraz.

### 4. Grafikoa


Hizkuntza ereduen eboluzioa Batxilergoan (%)



Iturria: Eustat, Siadecok landua.



Lanbide Heziketaren kasuan are atzerago zegoen euskarazko irakaskuntza: ia ikasle guztiak ari ziren A ereduan, erdaraz. Izatez, 2004-2005eko ikasturtera arte, ikasleen erdiak baino gehiago aritu ziren eredu horretan. Gaur egun, euskaraz ari dira gehienak: %84.



*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*


Irakaskuntzaren euskalduntze horretan badago salbuespen nabarmen bat, hala ere: helduen irakaskuntza iraunkorra. Eustaten datuen arabera, erdara hutsez ematen dute oraindik ere Tolosan. Ez da eboluziorik ageri datuetan. Kontuan hartzekoa da, gainera, ikasle kopuruan, bai, eboluzio argia izan dela: krisi garaiko urteetan 500 ikasle baino gehiago aritu dira helduen irakaskuntzan Tolosan. Azken datuen arabera, 250 inguru dira orain.

## Egoera soziolinguistikoa

Tolosako demografiaren eta hezkuntzaren ezaugarri nagusiei erreparatu ondoren, herriko egoera soziolinguistikoa aztergai. Lau datu nagusi erabiliko dira horretarako. Batetik, inkesta bidez lortzen diren hiru aldagai: euskararen ezagutza, herritarren lehen hizkuntza eta etxeko erabilera —2016ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuko datuak baliatu dira—. Bestetik, neurketa bidezko aldagai bat: kaleko erabileraren neurketa.


### Ezagutza

Hirugarren gune soziolinguistikoko herria da Tolosa, nahiz eta laugarrenetik gertu dagoen: euskara indizea %76,4 du —euskaldunak eta ia euskaldunen erdiak batuta sortzen da indize hori—. Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da; horretarako ezagutza baldintzak betetzen ditu. Euskaldunak hamarretik zazpi pasatxo dira. Hamarkada hauetako bilakaeran argi ikusten da euskaldunen portzentajea handitu egin dela —30 urtean, hamabost puntu—, baina kontuan izatekoa da erdaldun elebkarren portzentajea ere igo egin dela azken hamarkadan.



Iturria: Eustat.

Euskararen ezagutza adinaren aldetik begiratzen bada, nabari da aldea: oro har, zenbat eta gazteago, euskararen ezagutza handiagoa. Izatez, 20 urtetik beherako tolosarrak hartuta, hamarretik bederatzik baino gehiagok badakite euskaraz, eta ulertu ere egiten ez dutenak erabateko salbuespena dira. Euskaldunen portzentajerik baxuena 50 urtetik gorako adin taldeetan dago, baina horietan ere hamarretik sei dira euskaldunak.




*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

Generoaren ikuspegitik ez da diferentzia handirik ageri datu orokorretan: Tolosako gizonen %70,9 dira euskaldunak, eta emakumeen %71.

## Lehen hizkuntza

Euskararen erabilerari begira, badu garrantzia lehen hizkuntzak: hiztunak etxean jasotako hizkuntza da, *ama hizkuntza* ere esan izan zaiona. Tolosako egoerari dagokionez, herritarren erdiek euskara dute lehen hizkuntza (%50), baina kontuan izatekoa da aurreko estatistiken aldean jaisten ari dela portzentaje hori. Hazten ari da euskara eta gaztelania aldi berean jaso dituztenen portzentajea (%10), baita gaztelania ez den beste erdara bat jaso dutenena ere (%4).




*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

Adinaren aldetik begiratuta, kontuan hartzeko moduko diferentziak ageri dira lehen hizkuntzari dagokionez. Bost gako behintzat seinala daitezke. Bat: euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoan ez da diferentzia adierazgarrikerik ageri adinaren arabera. Bi: etxean gaztelania soilik jaso dutenena portzentajea 24 urtez azpiko herritarren artean da txikiena —ez dira hirutik batera iristen—. Hiru: adin talde gazteetan du pisurik handiena euskara eta gaztelania aldi berean jaso dituztenen portzentajeak. Lau: etxean euskara soilik edo gaztelania soilik jaso dutenena arteko diferentzia 20 puntutik gorakoa da adin gazteetan, euskara goitik dela betiere; aldiz, 50-70 urterekin, askoz txikiagoa da diferentzia hori. Eta bost: gaztelania ez den beste erdara bat lehen hizkuntza dutenak 20-40 urte artean dira gehiago —betiere %10 baino gutxiago—.

**9. Grafikoa**

Lehen hizkuntza, adinaren arabera (%) (2016)




*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

Generoari dagokionez, ez dago alde nabarmenik lehen hizkuntzaren arloan.

## Etxeko erabilera

Biztanleriaren eta etxebizitzaren inkestan galdetzen dute etxeko erabilerrari buruz. Datu aitortuak dira, beraz: jendeak zer dioen. Horien arabera, paretsuan daude euskararen eta gaztelaniaren erabilera Tolosako etxeetan: %40 euskaraz, %39 gaztelaniaz. Bi hizkuntzetan aritzen direla adierazi du ia bostetik batek. Gaztelania ez den beste erdara batean jarduten dutenak oso gutxi dira oraindik (%3), baina gorakada nabari da.




*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

Adinaren arabera alde esanguratsuak daude etxeko erabilera aitortuan. Belaunaldi arteko aldea oso nabaria da. Euskararen erabilerrari dagokionez, umeena eta gazteena dago buruan, eta 45 urtetik aurrera jaisten hasten da erabilera. Ezagutzarekin bat dator hori. Euskara eta gaztelania, biak erabiltzen dituztenenak 20 urtetik beherakoetan ageri dira batez ere, eta 40-50 urte artean —alegia, gurasoen eta umeen adin taldeetan—. Gaztelania ez diren beste erdara batzuen erabilera umeen eta gazteen artean da handiena —migrazioarekin zuzenean lotua dago hori—. Gaztelaniari dagokionez, berriz, 45 urtetik gorakoek erabiltzen dute gehien, eta adin tarte batzuetan hiztunen erdietara ere iristen da gaztelaniaren etxeko erabilera ohikoa.

**11. Grafikoa**

Etxeko erabilera, adinaren arabera (%) (2016)



*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

Etxeko erabilerrari generoaren perspektibatik begiratu gero, ez da alde handirik ageri inkestan.

### **Etxeko erabilera, ezagutzaren arabera**


Biztanleriaren eta etxebizitzaren inkestako datuak baliatuz, gurutzaketa batzuk egin dira etxeko erabilera hobeto aztertzeko. Ezagutzari dagokionez, honako harreman hau egin da: Tolosan zenbat euskaldun dauden eta etxean zenbatek egiten duten euskaraz. Oinarritzat hartu da etxean euskaraz aritzeko ezinbestekoa dela euskaraz hitz egiteko gaitasuna izatea. 2016ko datuen arabera, Tolosan 18.707 euskaldun daude, eta 7.433k egin ohi dute etxean euskaraz; hortaz, %56k. Etxean euskaraz eta erdaraz aritzen direla diote 3.442 herritarrek; euskaldunen kopuruarekin alderatuta, %26 dira. Beraz, bi aldagai horiek bilduta, bost euskaldunetik lau hartuko lituzkete (%82).

Euskaldunen kopurua eta etxean euskara aritzen direnena adinaren arabera aztertuz gero, nabari dira diferentzia batzuk. Adin talderik euskaldunenetan, umeetan eta gazteetan, handiagoa da ezagutzaren eta erabileraren arteko diferentzia. Adinekoetan hiru euskaldunetik bik egiten dute etxean euskaraz, baina 34 urtetik beherako adin taldeetan, batez beste, ozta-ozta iristen dira erdira. Egoera soziolinguistikoa ikusita, badu zentzua: euskaraz badakiten gaztetxo batzuek erdaldunak dituzte gurasoak, eta, beraz, ezinezko zaie etxean euskaraz aritzea. Horren alboan, hipotesi gisa, hizkuntza ohituren gaia ere jar daiteke mahai gainean. Edozein moduz, ezagutzaren eta erabileraren arteko konparazio horrek agerian uzten du oinarri bat: ezagutzak, bere horretan, ezin duela zuzenean ekarri erabilera, beste baldintza batzuk behar direlako erabilera areagotzeko —etxekideak euskaldunak izatea, adibidez—.



### 12. Grafikoa

Euskararen ezagutza eta etxeko erabilera, adinaren arabera (%) (2016)




Iturria: Eustat, Siadecok landua.

Ariketa berbera egin da 1996ko eta 2006ko datuekin ere, eta ez da diferentzia adierazgarrikeri ageri; alegia, euskaldunen erdiek baino gehixeagok egiten dute etxean euskaraz, eta jakitetik etxean erabiltzeko alderik handiena 24 urte baino gutxiagokoen artean ageri da.

### Etxeko erabilera, lehen hizkuntzaren arabera

Lotura handiagoa ageri da lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren artean —uste izatekoa da hala izatea: umetan etxean jasotako hizkuntza baita lehen hizkuntza—. 2016ko estatistikako datuak ustiari dira modu honetan: lehen hizkuntza euskara, gaztelania, biak edo beste bat dutenek zer esan duten etxeko erabilerari dagokionez. Adinaren aldetik ez da sumatu diferentzia adierazgarrikeri. Hona datuak, etxeko erabilera nolakoa den lehen hizkuntzaren arabera:



*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

Aurreko urteetako datuekin gurutzaketa bera eginda, nabari da euskararen erabilera areagotu dela. 1996an, adibidez, euskara lehen hizkuntza zutenen %61ek erabiltzen zuten etxean, eta 2016an, %72k; lehen hizkuntza biak dituztenen %9k egiten zuten euskaraz 1996an, eta orain, %18k. Lehen hizkuntza gaztelania dutenen erabilera ere igo da, nahiz pisu txikia duen: %2tik %6ra.


### Kaleko erabilera

Etxeko erabilera inkesta bidez aztertzen da, eta kalekoa, neurketa bidez. Ezin da, beraz, zuzenean alderaketarik egin bien artean. Batetik, desberdina delako aztertzeko modua: batean, ikusi egiten da zer egiten duten hiztunek, eta bestean galdetu egiten zaie. Bestetik, kaleko erabilera ez delako herri horretako hiztunek soilik osatua, baizik eta herri horretako kalean neurketa egin denean entzundakoa —alegia, Tolosako kaleetan neurketak egitean hiztunari ez diote galdetzen Tolosakoa ote den; berdin jasotzen dira denak—.

Tolosan 1985az geroztik egiten dituzte kaleko erabileraren neurketak. Siadeco Ikerketa Elkartearen eskutik abiatu zen lan hori, eta Galtzaundi Euskara Taldeak egin

du azken urteetan, udalak eskatuta. Neurketen serie luze horrek aukera ematen du, beraz, bilakaera ikusteko.

2018ko neurketaren arabera, kalean solasaldien %45 entzun zituzten euskaraz, %54 gaztelaniaz, eta %1 beste hizkuntza batzuetan. Euskararen erabileraren eboluzioa aztertzeko, bost urteko multzoak osatu dira, urte batetik besterako koskak arintzeko. Erabileraren jaitsierarik ez dute sumatu neurketa horiek, baina bai geldialdiak. Lehen urteetan, 1985etik 2000ra arte, erabilera handitu egin zen aldiz aldi: hamar puntu pasatxoko irabazia. Orduan hamar bat urteko geldialdi bat hasi zen, eta koska bat gora egin zuen 2010eko hamarkadaren hasieran. Harrezkero beste geldialdi bat nabari da.




*Iturria: Galtzaundi Euskara Elkartea.*

Adinaren arabera alde adierazgarria dago kaleko erabileran: zenbat eta gazteago, euskara gehiago. Hala izan da aurreko neurketetan ere.

**15. Grafikoa**

Euskararen kaleko erabilera, adinaren arabera (%) (2018)



*Iturria: Galtzaundi Euskara Elkartea.*

## Azterketaren oinarriak

Tolosako guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak aztertzea da ikerketa honen helburua. Modu zabalean erreparatuko zaie hizkuntza ohiturei. Batetik, ahozko erabilerari, hainbat esparrutan; bestetik, kultur kontsumoari eta hedabideenari. Ohitura horien oinarriak aztertze aldera, gurasoen hizkuntza ibilbidea eta euskararekiko iritzia ere aztertuko dira.

Azterketa egiteko, honako bide hauek baliatuko dira:

- ▶ **Inkesta.** Seme-alabak Lehen Hezkuntzan eta DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatuta dituzten guraso euskaldunei inkesta egin zaie, lagin baten bitartez. Aztergai diren gaiei buruzko galderak egin zaizkie.
- ▶ **Talde dinamika.** Inkestan jasotako datuen interpretazioan sakontze aldera, talde dinamikak egin dira parte hartzaileen lagin batekin.
- ▶ **Adituen iritzia.** Tolosako egoera soziolinguistikoa eta gurasoen ohiturak gertu-gertutik ezagutzen dituzten pertsona adituen iritzia bildu dira.
- ▶ **Bestelako informazio bideak.** Azterketarako propio jasotako informazioa osatzeko, datu soziolinguistikoko ugari baliatu dira, askotariko ikerketetan eta neurketetan erabilitakoak.

### Inkesta

Gurasoei egin zaie inkesta, euren hizkuntza ohiturak azaltzeko galdetegi baten bidez. Horretarako, Tolosan Lehen Hezkuntza eta DBH eskaintzen dituzten lau ikastetxeen laguntza izan da: Samaniego herri ikastetxearena, Orixe institutuarena, Laskorain ikastolarena eta Herrikide ikastetxearena. Eskolen bidez bideratu zaizkie galdetegiak gurasoei.

Lagin bat diseinatu da horretarako. Jasotako datuen arabera, 2018-2019ko ikasturtean 2.568 ikasle daude eskolatuak Tolosan Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Bi aldagai hartu behar dira kontuan, hala ere. Batetik, Tolosan eskolatutako ikasle guztiak ez dira tolosarrak —inguruko herri txikiagoetatik joandakoak dira batzuk, batez ere DBHn—; bestetik, ikerketaren helburua da guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak aztertzea, ez guraso guztienak. Bi aldagai horiek kontuan hartuta eta umeen

artean bereizketarik ez egiteko —alegia, galdetegiak ez banatzea umearen jaioterriaren eta gurasoen hizkuntza ezagutzaren arabera—, erabaki da lagin zabalagoa egitea, ziurtatzeko jasoko direla behar adina erantzun bi baldintzak betetzen dituztenak: Tolosan bizi diren guraso euskaldunen erantzunak.

Laginean denera 1.468 ikasle sartu dira, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasle guztien %57. Lehen Hezkuntzan 757 ikasle sartu dira laginean (ikasleen %53); DBHn, 711 ikasle (%62). Ikasmilaz ikasmila eskolatutako ikasleen kopurua hartu da aintzat, eta zoriz hautatu dira ikastetxe bakoitzeko ikastalde batzuk. Ikastetxez ikastetxe hau da laginaren banaketa:

**3. taula.** Inkestan erabilitako lagina, ikastetxearen arabera.

Ikastetxea	Ikasle kopurua	Laginaren ehunekoa
Samaniego herri ikastetxea	223	%15
Orixe institutua	267	%18
Laskorain ikastola	543	%37
Herrikide ikastetxea	435	%30
Guztira	1.468	%100

*Iturria: Siadeco.*

1.468 galdetegi horiek ikastaldeka banatu dira, eta gurasoei dei egin zaie erantzutera. Bi aukera jarri zaizkie: Interneten bidez erantzutea, edo paperean. Denera 740 galdetegi jaso dira bueltan, banatutakoen %50,4. Datuen interpretazioa egiterakoan, beraz, kontuan hartu behar da hori: nahiz eta lagina diseinatu zentro eta ikasmila bakoitzeko ikasle kopurua aintzat hartuta, erantzutea borondatezkoa izan da.

Jasotako 740 galdetegi horiek araztu egin dira eskatutako bi baldintzak betetzeko; alegia, gurasoak Tolosan bitztea eta euskaraz jakitea. Horren ondorioz, baztertu egin dira 181 galdetegi. Baita beste hamabi inkesta ere, galdera asko bete gabe zeuzkaten eta. Hortaz, 547 galdetegi baliatuko dira ikerketan. Hasierako lagin banaketa aldatu egin da azkenean. Hau da banaketa zentroz zentro:

**4. taula.** Jasotako inkestak, ikastetxearen arabera.

Ikastetxea	Egoki bete gabeak	Ez euskaldunak edo ez Tolosakoak	Baliozkoak	Baliozkoak %
Samaniego herri ikastetxea	1	46	53	%9,7
Orixe institutua	0	58	36	%6,6
Laskorain ikastola	9	39	375	%68,6
Herrikide ikastetxea	2	38	82	%15,0
Guztira	12	181	547	%100,0

*Iturria: Siadeco.*

Galdetegia bete dutenei buruzko datu adierazgarri bat: lautik hiru emakumeak dira (%77). Gizonak %22 izan dira, eta %1ek ez dute sexua zehaztu.

2018ko azaroan egin dira inkestak.

**Talde dinamika**

Inkestan jasotako datuak interpretatzeko helburuarekin, talde elkarrizketak egin dira guraso batzuekin. 21 aita-amak parte hartu dute azterketa honetarako propio antolatutako solasaldietan; emakumeak izan dira gehienak. Era anonimoan erabili dira elkarrizketa horietan emandako iritziak. 2018ko abenduan egin dira saioak.

### **Adituen iritzia**

Jasotako datuak eta ikuspegiak osatze aldera, Tolosan euskararen egoera gertutik ezagutzen duten sei lagunen iritzia bildu dira. Honako hauek dira:

**Kike Amonarriz.**

Soziolinguista da, Euskal Filologian lizentziaduna. Urteak daramatza soziolinguistikaren arloan lanean; besteak beste, Tolosako Udaleko euskara teknikaria izan zen, eta Siadeco Ikerketa Elkartekoa.

**Joseba Antxustegietxarte.**

Herrikide ikastetxeko irakaslea da, eta hizkuntza normalizazioko arduraduna. Galtzaundi euskara taldeko zuzendaritzako kidea.

**Imanol Artola.**

Galtzaundi euskara taldeko teknikaria da, eta, besteak beste, gurasoen hizkuntza ohiturak aldatzeko Eusle proiektuaren arduraduna.

**Helena Baraibar.**

Laskorain ikastolako irakaslea da, eta euskararen erabilera bultzatzeko hainbat egitasmotan aritua; besteak beste, Ikastolen Elkartearen *Euskaraz Bizi* proiektuan.

**Xabier Bengoetxea.**

Lasarte-Oriako Berritzeguneko hizkuntza normalizazioko teknikari ohia —erretiroa hartuta dago—. Tolosaldeko lau arnasguneri buruzko ikerketa bat argitaratu zuen 2012an: *Arnasgunek. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa*.

**Silvia Mateo.**

Samaniego herri ikastetxeko irakaslea da, eta hizkuntza normalizazioko arduraduna.

### **Bestelako informazio bideak**

Ikerketa honetan jasotako datuak eta iritzia osatzeko, beste informazio bide batzuk ere baliatu dira: bai Tolosako egoera soziolinguistikoari buruzko azterketak —biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika, kaleko erabileraren neurketa...—, bai beste gisa bateko ikerketak ere. Kasu guztietan, adierazita daude informazio iturriak.



## Aztergai den unibertsoa

Zein gurasoren hizkuntza ohiturak aztertu, irizpide gisa seme-alabak hartu dira: Lehen Hezkuntzan eta DBHn ari diren ikasleen gurasoen hizkuntza ohiturak aztertuko dira. Hortaz, 2002 eta 2012 artean jaiotako gurasoak. Aita-ama horien adina kalkulatzeko, hurbilketa bat egin da Eustaten datuak baliatuz. Gipuzkoako jaiotzei buruzko estatistikak baliatu dira, honako urrats hauek eginda:


- ▶ Lehenik, 2002-2012 artean Gipuzkoan izandako jaiotzen estatistika hartu da, amaren adina kontuan hartuta. Amaren adinaren arabera zenbat ume jaio diren zerrendatu da —adibidez, 33 urteko ama zenbat umek izan duten, 34 urtekoa zenbatek...—, eta hori egun da urterik urte, 2002tik 2012ra.
- ▶ Bigarrenik, jaiotza urtetik 2018ra zenbat urte joan diren erantsi zaio adin talde bakoitzari —adibidez, 2002ko adin talde bakoitzari 16 urte erantsi zaizkio, 2003ko adin taldeei 15...—.
- ▶ Hirugarrenik, bi aldagai horiek elkartu dira, jakiteko urte bakoitzean jaiotako umeen amek batez beste zer adin duten gaur egun. 44,04 urte dituzte batez beste. Hau da osatutako zerrenda, umeen jaiotza urtea erreferentzia gisa hartuta:

Jaiotza urtea	Amen batez besteko adina gaur egun
2002	48,4
2003	47,5
2004	46,6
2005	45,6
2006	46,8
2007	44,7
2008	42,8
2009	41,9
2010	41,1
2011	40,3
2012	39,5

Datu soziolinguistikoak aztertzeko, 40-49 urteko adin tartea hartuko da erreferentzia modura. Tolosako datu zehatzak eskuratu dira Eustatetik.

### Ezagutza

Eboluzio argia nabari da euskararen ezagutzari dagokionez: adin tarte horretako hiru tolosarretik bik badakite euskaraz, eta euskara ulertzen dutenak erantsita, bostetik lau pasatxo dira. Erdaldunen portzentajeak gora egin du azken hamarkadan.



*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*


### Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaisten ari da, eta erdiak baino gutxiago dira orain. Euskara eta gaztelania aldi berean jaso dituztenen portzentajea, berriz, handitu egin da —hamarretik bat da—, baita gaztelania ez den beste erdara bat lehen hizkuntza dutenena ere —%5 dira—.

**17. Grafikoa**

Lehen hizkuntza 40-49 urterekin (%)

■ 1996 ■ 2006 ■ 2016



*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*


**Etxeko erabilera**

Euskararen erabilera areagotzen ari da adin talde horretan, Eustaten arabera. la gaztelaniaren parera iritsi da etxeko erabilera. Euskaraz bezala gaztelaniaz egiten dutela adierazi du bostetik batek. Igo egin da beste erdara batean aritzen direnen portzentajea ere, baina bazterrekoa da oraindik (%3).

**18. Grafikoa**

Etxeko hizkuntza 40-49 urterekin (%)


■ 1996 ■ 2006 ■ 2016



*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

### Lehen hizkuntza eta etxeko erabilera

Erlazioa nabari da lehen hizkuntzaren eta etxeko erabilerearen artean. Euskara lehen hizkuntza duten 40-49 urteko tolosar gehienek euskaraz egiten dute etxean (%72), eta lehen hizkuntza gaztelania dutenek, gaztelaniaz (%83). Datu orokorrekin bat dator joera hori. 40-49 urtekoen zenbakiak eta orokorrak alderatuta, ñabardura bat: handiagoa da euskaraz eta gaztelaniaz, bietan egiten dutenen portzentajea. Uste izatekoa da umeekin lotuta egon daitekeela aldaketa hori: alegia, haurrekin euskaraz eta bikotekidearekin erdaraz.




*Iturria: Eustat, Siadecok landua.*

Eguneroko harremanetako erabilera aztertu da: bikotekoa, seme-alabekikoa, gurasoekikoa, kuadrillakoa eta lantokikoa. Ikerketa kuantitatiboko emaitzekin batera, alderdi kualitatibotik jasotako informazioa ere baliatu da atal bakoitzean, ikuspegi osoa emateko helburuarekin.

### 1.1. Bikotea


Guraso euskaldun gehienek bikotekide euskalduna dute. Inkestako datuen arabera, sei bikotetik bost dira euskaldunak (%86): bikoteko biek badakite euskaraz. Bikote mistoa hamarretik bat da (%12): kideetako batek ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunik —kasu gehienetan, ulertu egiten dute—.



Iturria: Siadeco.

Ezagutza datu horien arabera, bikotean euskara erabiltzeko aukera badute guraso euskaldunen %86k —euskara ulertzen duten bikotekideak erantsiz gero, %94k—. Gehienbat euskaraz aritzen diren bikoteak, ordea, ez dira bostetik hirura iristen (%56), eta euskaraz tarteka aritzen direnak erantsita, lautik hirura ez (%73).

Bikote horien gaur egungo erabilera aitortua da hori. Interesgarria da ikustea bikote horiek eurek nola egiten zuten erlazioa hastean. Nabari dira diferentzia batzuk: zabaldu egin da euskaraz eta erdaraz, bietan egiteko joera (%10etik %17ra), eta jaitsi gehienbat euskaraz edo gehienbat erdaraz aritzeko ohitura.



*Iturria: Siadeco.*

Izatez, esparruz esparru aztertu da zenbateko jauzia dagoen ezagutzatik erabilerara, eta bikoteko erabileran ageri da saltorik handiena. Diferentzia hori aztertzeko, bi indize sortu dira, eremu soziolinguistikoak zehazteko erabiltzen den formula oinarri hartuta. Batetik, ezagutzarena: euskaldunen portzentajeari erantsi ia euskaldunen erdia. Bestetik, erabilerarena: gehienbat euskaraz egiten dutenei erantsi bi hizkuntzetan egiten dutenen erdia. Bikoteko ezagutza indizea %90ekoa da, eta erabilera indizea, %64koa. Proporziora eramanda, %29ko galera dago ezagutzatik erabilerara.

Ezagutzatik erabilerarako jauzi hori ez dago bikote mistoekin lotua: bikoteko bi kideak euskaldunak direnean ere ageri da jaitsiera. Bikote euskaldunen %65 aritzen dira euskaraz, nahiz eta ezagutza %100ekoa izan. Bikote euskaldunetan areagotzen ari da euskaraz eta gaztelaniaz, bietan egiteko joera: %18k diote hala egiten dutela —erlazioaren hasieran %11k egiten zuten—.

Ezagutza ez, beste aldagai bat da funtsezkoa bikoteko erabilerari dagokionez: erraztasuna. Argia da joera: zenbat eta erraztasun txikiagoa euskaraz egiteko, zenbat eta erosotasun txikiagoa, gehiago jotzen dute erdarara. Euskaraz errazago egiten dutenen %83 gehienbat euskaraz aritzen dira bikotekidearekin; bietara berdin egiten dutenen artean, %51; eta erdaraz errazago egiten dutenetan, %4. Bikoteko ezagutza maila desberdina da hiru tipologia horietan, baina erraztasuna da giltzarria, hala ere. Hara: euskaraz errazago egiten dutenen %91k dute bikotekide euskalduna, eta %83k egiten dute gehienbat euskaraz (bikote euskaldunen %91); bietara berdin egiten dutenen %87k dute bikotekide euskalduna, eta %51ek egiten dute (bikote euskaldunen %59); eta erdaraz errazago mintzo direnen %69k dute bikotekide euskalduna, eta %4k egiten dute (bikote euskaldunen %6).

**5. taula.** Erabilera bikotean, hitz egiteko erraztasunaren arabera.

	Euskaraz gehiago	Bietara berdin	Erdaraz gehiago	Erantzunik ez
Euskaraz errazago	82,9	6,2	6,7	4,2
Bietara berdin	51,1	23,4	21,6	3,9
Erdaraz errazago	4,2	15,5	76,1	4,2

*Iturria: Siadeco*

## Gogoeta

Bikoteko erabileran ageri dira kontuan hartzeko joera batzuk. Nabarmena da euskara jakitea ez dela aski bikotean erabiltzeko, hori baino gehiago behar dela: erosotasuna. Erabilera datuak eta erraztasuna gurutzatzean argi ikusi da aldea: euskaraz errazago egiten dutenen artean orokortua dago euskaraz aritzea, baina erosotasuna aldatzean asko jaisten da erabilera. Aurkako norabidea ere izan dezake horrek: erabilerarik ezagatik erraztasuna galtzea.

Gurasoekin egindako talde dinamiketan agerian geratu da erraztasunaren garrantzia: harreman intimoena da bikotekoa, eta erosotasuna giltzarri da.

*«Bikotekideak esan izan dit: 'Oso nekatuta nago'. Eta gaztelaniaz egiten dugu»*

*«Ezagutzen ditut bikote batzuk euskaraz jakin bai baina bigarren hizkuntza bezala erabiltzen dutenak: umeari euskaraz, baina euren artean erdaraz. Erraztasuna da gakoetako bat»*

*«Bikotekidearekin erdaraz egiten dut, nahiz eta berak euskaraz egiten dien alabei. Saiatzen ari naiz txipa aldatzen, eta batzuetan lortzen dut. Baina bera galdua bezala sentitzen da»*

*«Tolosan badago jende multzo bat erdaraz errazago egiten duena, edo erdaraz aritzeko joera handia daukana. Multzoan gaudenean jende hori saiitzen da euskaraz egiten, eta ondo egiten du euskaraz, baina konfiantzako hizkuntza erdara dute»*

Hizkuntza ohiturekin lotutako arrazoibideak ere eman dituzte gurasoek: bikotea zer testuingurutan osatu zen, nolako hizkuntza ibilbidea duen bakoitzak, eta nola hasi zuten harremana. Kontuan izatekoa da bikote horietako asko osatzean bestelakoa zela Tolosako egoera soziolinguistikoa, indar handiagoa zeukala erdarak, eta horren arrastoak izan daitezkeela oraingo erabileran.

*«Bikotearekin erlazioa erdaratik sortu zen. Aldatzen ari gara, baina pila bat kostatzen ari zaigu»*

*«Asko kostatzen da. Aurpegira begiratu, eta erdara ateratzen zaizu: lotuta dago»*

*«Bikote askori entzun diet: 'Gaztelaniaz ezagutu genuen elkar, eta oso zaila da horri buelta ematea'»*

*«Ohitura kontua da: elkar ezagutu genuenean erdaraz hitz egiten zuen bikotekideak, eta nik aldatu nuen nire erabilera. Errazenera jo dugu»*



*«Bikoteko ezaupidea erdarazkoa izan bada, zaila da aldatzea. Jende batekin gertatzen zait niri ere: betidanik erdaraz egin dut haiekin, ez dakit nola hasiko ginen erdaraz, baina zaila zait aldatzea»*

*«Izan liteke gaztetako hizkuntza ohituren eragina: harremana erdaraz eraiki izana»*

Gurasoen inkestek azaleratu dute joera bat: zabalitzen ari da euskaraz eta erdaraz, bi hizkuntzetan egitea. Bi hizkuntzak tartekatzeko joera hori umeekin lotua ikusten dute guraso batzuek: haurrek ulertzea nahi ez dutenean erdaraz hasten direla guraso euskaldunak, eta ohitura hori errotu egiten zaiela azkenean.

*«Biok euskaldunak gara, baina badaukagu ohitura tarteka erdaraz egiteko. Gehienbat hasi ginen umeen aurrean, haiek ez ulertzeko, baina oso erraz jarraitzen dugu erdaraz bion artean. Beste guztia euskaraz egiten dut nik»*

*«Ezagutzen dut bikote bat baino gehiago umeak izan dituztenean, haurrek ez ulertze aldera, gaztelaniaz hitz egiten dutenak. Total, umeek dena ulertzen amaitzen dute, eta gurasoek erdaraz jarraitzen dute beren artean»*

Umeekin lotuta, badago aurkako norabidea ere: erdararako joera txikitzea, tarteka behintzat euskaraz egitea bikotean. Eredu izatearekin lotzen dute aldaketa hori —transmisioaren atalean aztertuko da gai hori zehatzago—.

*«Esfortzua egiten ari gara, behintzat umeekin gaudenean gure artean euskaraz aritzeko»*

*«Umea daukagunetik joera hori aldatu dugu: lehen erdarara gehiago jotzen genuen. Orain garrantzia ematen ari gara euskararen erabilerari»*


Adituek hizpide izan dituzte aldagai horiek. Samaniego ikastetxeko hizkuntza arduradunak, Silvia Mateok, azaldu du umeak izatean aldatu egiten dela guraso batzuen jokabidea, baina ezintasunak dituztela: «Batzuk umeak izandakoan hasten dira euskaraz, txikiekin motibatuta daude, gehiago ikasi nahi dute... Baina halako batean ezin dute jarraitu. Batzuetan, gaitasun faltagatik; beste askotan, gizartearen ispilu bezala —'umeekin euskaraz, helduekin gaztelaniaz'—, hori ikusi dutelako edo helduekin beti gaztelaniaz aritu direlako. Erosotasunagatik, besterik gabe».

*Hizkuntza mudantza kontzeptua erabili izan da euskara erabiltzeko aldaketa hori azaltzeko. Honela deskribatu izan dute: «Pertsona bat gizartean ordura arte*

erabiltzen ez zuen hizkuntza hitz egiten hastea, edo jende ezagunarekin edo testuinguru jakinetan hizkuntza aldatzea, edo ordura arte egoera jakinetan hizkuntza erabiltzeko aukeran eragiten zuten arauak aldatzea» (Pujolar, Gonzalez, Martinez, 2017). Mudantza hori egiteko abaguneetako bat izan ohi da umeak edukitzea: guraso batzuei orduan sortzen zaie nahia euskararen erabileran urratsak egiteko. «Baina gauzateak ahalegin handiegia eskatzen badu edo motibazio horren nahikotasun maila ez bada esfortzuak eskatzen duen adinakoa, hozten joaten da motibazio hori», azaldu du Xabier Bengoetxea irakasleak. Bi arrazoi ikusten ditu zailtasun horretarako: erraztasuna —«gaitasunean atalase maila bat behar da»— eta ingurua. Gurasoekin izandako solasaldietan agertu diren faktoreak, hain justu ere. «Elkar elikatzen den gurpila» da, Bengoetxeak dioenez: motibazioa, gaitasuna eta ingurua.

## 1.2. Gurasoak


Inkestan jasotako datuen arabera, guraso euskaldunen %70ek aita-ama euskaldunak dituzte —alegia, eskola umeen aitona-amonak—. Euskara ulertu soilik egiten dute %16k, eta %12k, ulertu ere ez. Ezagutza datuetan alde adierazgarria dago sexuaren arabera: emakumeen artean, inkestatuen amen artean, handiagoa da euskararen ezagutza. Sexuaren araberrako desberdintasuna nabari da biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuko datuetan ere: 65-74 urte arteko Tolosako gizonen %56 dira euskaldunak, eta emakumeen %60.



Iturria: Siadeco.

Datu horien arabera, hamar guraso euskaldunetik zazpi dituzte aita-ama euskaldunak, eta ulertzen dutenak erantsita, %85 dira. Beren aita-amekin euskaraz aritzen diren gurasoak erdiak pasatxo dira (%52), eta tarteka aritzen direnak batuta, hirutik bi pasatxo (%68). Ezagutzaren indizea eta erabilerarena alderatuta, %21eko galera ageri da ezagutzatik erabilerara —bikotean baino apalagoa: %29ko galera da bikotekoa—.

Gurasoekiko oraingo erabilera eta umetakoa alderatuta, galera nabari da. Gaur egungo gurasoak ume zirenean, %64 aritzen ziren aita-amekin gehienbat euskaraz, eta tarteka aritzen zirenak gehituz gero, %77. Gaur egungo erabilera eta umetakoa alderatuta, nabarmena da euskararen erabilera jaitsi egin dela (12 puntu), eta igo egin dela bi hizkuntzetan aritzeko joera (3 puntu eskas) eta erdaraz egitekoa (7 puntu) —falta diren 2 puntuak hildako gurasoei dagozkie—.



*Iturria: Siadeco.*

Euskararen erabileraren galera hori nondik agertu den, bi faktore uztartu behar dira. Batetik, euskarak ez duela irabazi handirik izan gurasoekiko hartu-emanetan urteotan —batez ere erdaraz egiten zutenen %1 igaro dira tarteka euskara erabiltzera, eta bietan egiten zutenen %7k egiten dute gehiena euskaraz gaur egun—. Bestetik, erdaldundu egin dira harreman gehiago: gehienbat euskaraz egiten zutenen %13

pasatu dira tarteka edo erabat erdaraz aritzera, eta umetan bi hizkuntzak erabiltzen zituztenen herenek (%34) erdaraz egiten dute gaur egun.

**6. taula.** Gurasoekiko erabilera gaur egun, umetako erabileraren arabera.

	Euskaraz gehiago	Bietara berdin	Erdaraz gehiago	Erantzunik ez
Umetan euskaraz	79,7	12,6	5,2	2,6
Umetan bietara	6,8	57,5	34,2	1,4
Umetan erdaraz	0	0,9	94,9	4,3

*Iturria: Siadeco*

Aitona-amona horiek umeekin egiten dute euskara gehien: %68 aritzen dira haurrekin euskaraz, %12 bi hizkuntzetan, eta %17 erdaraz. Gurasoekin baino 16 puntu handiagoa da erabilera, beraz, eta, areago, oraingo gurasoak umeak zirenean baino 4 puntu handiagoa. Aurrerapen bat badago hor.

## Gogoeta

Gurasoek aita-amekin duten erabileran badira gorabehera batzuk. Batetik, umetako erabilera: salto txikiena orduan ageri da ezagutzaren eta erabileraren artean; alegia, euskaraz bazekiten gehien-gehienek euskaraz egiten zuten. Areago, joera hori indartu egin da: aitona-amonek are gehiago egiten dute beren bilobekin euskaraz, beren seme-alabekin egin zutena baino zertxobait gehiago.

Bestetik, ordea, nabari da euskararen erabilera jaitsi egiten dela koskortu ahala: gaur egun umetan baino gutxiago egiten dute gurasoek euskaraz beren aita-amekin. Galera bereziki soslai batean ageri da: umetan bi hizkuntzetan egiten zutenen herenak pasatu dira erdaraz soilik hitz egitera. Uste izatekoa da erraztasuna dagoela horren oinarrian —umeekin euskaraz egiteko adinako gaitasuna izatea, baina helduekin aritzekoa ez—, eta etxeko hizkuntza ohituren eragina ere kontuan hartzekoa dela: alegia, helduen arteko solasaldiak erdarazkoak izan direla, eta handitu ahala, horretan sartu direla umeak ere.

Horrelako kasuak badira gaur egun ere: alegia, erraztasun mugatuaren ondorioz, erdaraz egiten duten aita-alabak, baina oraingoz euskaraz mintzo diren aitona-bilobak.


*«Aitak bilobei euskaraz egiten die, eta niri, beti erdaraz, ez delako gai esaldiak ondo osatzeko. Ume oso txikiak dira (2 eta 5 urte), eta oso ondo moldatzen da; ez diote zuzentzen. Ikusiko dugu umeak koskortzean gai den horri eusteko»*

### 1.3. Kuadrilla

Lagun taldeari dagokionez, inguru euskalduna dute guraso euskaldun gehienek: %93k adierazi dute kuadrillan denak edo gehienak direla euskaldunak. Ia salbuespena dira kuadrilla gehiena erdaldun elebakarrez osatua dutenak (%0,4) edo euskara ulertu soilik egiten dutenen kuadrillak (%6).

**24. Grafikoa**

Kuadrillako hizkuntza ezagutza (%)




*Iturria: Siadeco.*

Hamar guraso euskaldunetik ia sei aritzen dira euskaraz kuadrillan (%59), bikotean eta aita-amekin baino gehixeago. Izatez, bikotean eta gurasoekin ez bezala, euskararen erabilera zerbait areagotu da kuadrillan: nerabetan %57k egiten zuten gehienbat euskaraz, eta orain, %59k. Saltoa are handiagoa da euskaraz eta erdaraz, bi hizkuntzetan aritzen direnetan: %19tik %24ra. Gehienbat erdaraz aritzen diren kuadrillak seitik bat dira (%15), eta lehen ia lautik bat ziren (%23).

### 25. Grafikoa

Euskararen erabileraren eboluzioa kuadrillan



*Iturria: Siadeco.*

Kuadrillako erabileran bada aldagai giltzarri bat: eskolako hizkuntza. Kuadrilla asko osatzen dira eskolako lagun taldean, eta ikasketak nola egin zituzten, giltzarri da ondorengo erabileran. Euskaraz ikasi zutenen artean, %72k egiten zuten kuadrillan euskaraz nerabetan; eskolan erdaraz eta euskaraz ikasi zutenen %29 aritzen ziren euskaraz lagunartean; eta erdaraz soilik ikasi zutenen %19.

Ikasketak euskaraz egin zituzten ia denek eutsi egin diote euskararen erabilerari (%72). Erdaraz hamarretik bat aritzen zen, eta horietako batzuk bi hizkuntzetan aritzera pasatu dira. Ikasketak bi hizkuntzetan edo erdaraz egin zituztenen artean, berriz, euskararen erabilera handitu egin da: ia hiru gurasotik bat aritzen da kuadrillan euskaraz. Bi hizkuntzetan egiten dutenak ere nabarmen ugartu dira, eta erdararen erabilera jaitsi egin da; ikasketak erdaraz egin zituztenen artean, esate baterako, hamarretik sei aritzen ziren erdaraz kuadrillan, eta orain, hirutik bat.

**7. taula.** Erabilera kuadrillan, eskolako hizkuntzaren arabera.

		Euskaraz gehiago	Bietara berdin	Erdaraz gehiago	Erantzunik ez
Nerabegaroko erabilera	Eskola euskaraz	72,1	17,2	10,5	0,2
	Eskola bietara	28,6	28,6	42,9	0,0
	Eskola erdaraz	18,9	22,1	58,2	0,8
Gaur egungo erabilera	Eskola euskaraz	71,5	19,2	8,2	1,0
	Eskola bietara	32,1	42,9	25,0	0,0
	Eskola erdaraz	29,5	35,2	34,4	0,8

*Iturria: Siadeco*

## Gogoeta

Euskararen erabilera handiagoa da orain gurasoen kuadrilletan, lagun talde horiek osatu zirenean baino. Eskolako hizkuntza giltzarria da kuadrillako erabileran, datuek erakutsi dutenez; kontuan izatekoa da kuadrilla askoren sorburua dela ikastetxea. Gurasoen talde dinamiketan agerian geratu da ikastetxeak baduela eragina hizkuntza ohituretan. Areago, horrekin lotu dute kuadrilletako erabilera aitortua bikotekoa baino handiagoa izatea.

*«Kuadrillan euskaraz egiten dugu, ikastolatik sortuak garelako: euskaraz izan da gure erreferentzia, eta horrekin jarraitu dugu. Bikotekidea, berriz, ez nuen eskolan ezagutu, eta erdara izan da gure erreferentzia»*

*«Eskolan euskaraz hazia bazara, ez daukazu arazorik kuadrillan euskaraz hitz egiteko. Baina bikotean ezagutu dituzun harremanak gaztelaniazkoak badira, horrek eragina du»*

Nerabetako erabilera baino handiagoa da oraingoa. Gaur egungo gurasoak nerabe zirenean euskaraz gutxiago egiten zen Tolosan, eta, areago, aita-ama batzuek azaldu dute euskaratik urruntzeko joera izan zutela nerabetan; horietako batzuek jarrera *erbeldea* izatearekin lotu dute erdararako jauzia, agintzen zietenaren aurkakoa egitearekin. Orain, berriz, beste fase batean daude: gurasoak dira, umeak dituzte, eta euskararen erabilera areagotu egiten da haurren bueltan.



*«Kuadrillan euskaraz egiten dugu, baina urte askoan eduki dugu ohitura erdaraz egiteko. Egoten da momentu bat nerabezaroan: 'Euskaraz egin behar da? Ba guk ez'. Gerora jabetu ginen, eta pixkanaka berriro euskarara jo dugu»*

*«Ikastolan behin eta berriro esaten ziguten: 'egin euskaraz', euskararen kanpaina... Ez dakit askotan ez ote zuen aurkako efektua lortzen»*

*«Umetan euskaraz egiten nuen beti, eta eskolan zailtasuna neukan erdaraz hitz egiteko. Lagunartean saltoa egin genuen euskaratik erdarara nerabezaroan, eta urte pila batean erdaraz egin dugu erabat. Orain denok ditugu umeak, eta gure erlazioa aldatu da berriro euskarara»*

Gurasoen lagun multzoa ohiko kuadrillatik haragokoa da maiz; harreman handia izan ohi dute beren seme-alabekin batera ari diren umeen gurasoekin, edo parkeko beste aita-amekin. Finean, beren egoera berean daudenekin. Horrelako kasuetan, erlazio horietako asko sortu berriak dira, ez dira gaztetxotatik elkarrekin ibiliak, eta umeen eta eskolaren bueltan ezagutu dute elkar. Parkeko eta horrelako lekuetako joerez ez da zehazki galdetu inkestan, baina gurasoekin egindako elkarrizketa saioetan hizpide izan da hori. Euskararen erabilera areagotzeko aukera sumatzen dute.

*«Guraso askok egiten dute gaztelaniaz; adibidez, parkean. Askok euskaraz ari direlakoan hitz egiten dute gaztelaniaz»*

*«Patioan entzuten dira euskaldunak erdaraz»*

*«Guraso asko ez dira konturatzen erdaraz aritzen direla»*


Kuadrillaren aldean badago desberdintasun nabarmen bat: heterogeneoagoak dira parkeko taldeak. Euskaldunak gehiago nahasten dira euskaldun hartzailleekin eta erdaldunekin, jatorri eta adin desberdinekoekin, eta, areago, baita euskarari buruz jarrera ezkorra dutenekin ere. Aldagai horiek badute eragina euskaraz egiteko aukeretan eta erraztasunean.

*«Ni mugitzen naizen jendearen artean, denek ulertzen dute euskara, baina ez dute guztiz menperatzen. Ez dira ausartzen euskaraz egitera, eta, azkenean, neu pasatzen naiz erdarara. Ikusten duzu esfortzu handia eskatzen diela haiei, eta pentsatu gabe pasatzen zara»*

*«Erlazionatzen naizen jendeak ez du euskararekin jarrera positiborik, eta automatikoki gaztelaniaz egiten dugu beti»*

#### 1.4. Lantokia

Lankide euskaldunak dituzte guraso euskaldun gehienek: bostetik lauk azaldu dute euskaldunak direla lantokiko gehienak. Euskara ulertu soilik egiten duten lankideak ditu hamar gurasotik batek, eta gehienak erdaldunak dituztenak %4 dira. Kontuan izan behar da badela guraso multzotxo bat ez duena lantokirik (%4).




*Iturria: Siadeco.*

Erabilerari dagokionez, %69ko indizea ageri da: %57k beti edo gehienbat euskaraz egiten dute lantokian, eta %23k, erdaraz adina. Indize hori kuadrillakoa baino txikiagoa da, baina bikotekoa eta aita-amekikoa baino handiagoa. Izatez, ezagutzatik erabilerarako salto txikiena lantokian ageri da, umekiko harremanaren ondoren.

**27. Grafikoa**

Euskararen erabilera lantokian (%)



*Iturria: Siadeco.*

Jakina, lantokiko erabileran zuzeneko zerikusia dauka euskaldunen dentsitateak: lantokian gehienak ez direnean euskaldunak, nabarmen jaisten da euskararen erabilera. Gehienak euskaldunak diren lantokietan, hirutik bi gurasok baino gehiagok jarduten dute batik bat euskaraz; gehienak euskaldun hartzailleak edo erdaldunak direnean, berriz, zazpitik bat ere ez da euskaraz jarduten.

**8. taula.** Lantokiko erabilera, ezagutza mailaren arabera.

	Euskaraz gehiago	Bietara berdin	Erdaraz gehiago	Erantzunik ez
Gehienak euskaldunak	68,2	23,6	6,4	1,8
Gehienak ia euskaldunak	12,7	33,3	54,0	0,0
Gehienak erdaldunak	13,0	0,0	87,0	0,0

*Iturria: Siadeco*

## Gogoeta

Inkestako datuen arabera, bikotearekin baino handiagoa da euskararen erabilera lantokian, nahiz eta ezagutza indizea txikiagoa izan. Lantokien kasuan ere, parkeko harremanetan bezala, gogoan izan behar da inguru heterogeneoagoa dela: adin desberdineko lankideak, eta erraztasun desberdinekoak.

Gurasoen hitzetatik ondoriozta daiteke aurrerapen handienak eremu formalean eman dituztela lantokiek: bileretan, harreman formaletan, herritarrei begirako jardunean...

*«Bilerak euskaraz egiten ditugu. Euskaraz ez dakitenen parte hartzea gaztelaniaz izaten da, baina bilera bera, euskaraz»*

*«Jende berria euskalduna sartzen da, eta euskaraz egiteko joera dago. Badaude zaharrenean artean euskaraz ez dakitenak, baina batzar orokorrak, adibidez, euskaraz egiten dira»*

Aurrerapauso hori gutxiago nabari da, ordea, esparru informalean: erdaraz finkatutako hizkuntza ohiturek eragin handia dute hor, nahiz eta lan hizkuntza gisa euskarak aurrerapausoak eman.


*«Udaletxean bertan ikusten da: denak euskaldunak dira, baina beren artean erdaraz jo eta su. Zerbitzua euskaraz emango dizute, txostena ere bai, baina beren artean erdaraz egiten dute»*

*«Bilerak euskaraz egiten ditugu, baina bazkalorduan elkartu gaitezke sei-zazpi, eta bat euskalduna ez izatea aski da bazkalordu osoa erdaraz egiteko. Egoera horretan arraro sentitzen zara batzuekin euskaraz eta besteekin gaztelaniaz eginda»*

*«Denok gara euskaldunak, baina ohitura handia dago erdaraz egiteko, batez ere lehengo langileekin; gazteekin euskaraz gehiago. Denok gara euskaldunak; ez dago ezagutza arazorik»*

## 1.5. Umeak

Haurrekin egiten dute euskara gehien gurasoek, alde nabarmenarekin. Beste hainbat ikerketak erakutsitakoa berretsi du, beraz, Tolosako guraso euskaldunekin egindako azterketak. %93ko erabilera tasa ageri dute gurasoen eta haurren arteko harremanek. Gurasoei galdetu zaie umeek nola egiten duten beren artean, eta, datu horien arabera umeek joera handixeagoa dute bi hizkuntzetan aritzeko, tarteka erdara ere sartzeko. Haurrek aitona-amonekin egiten dute euskara gutxien: hirutik bi pasatxo aritzen dira gehienbat euskaraz. Kontuan izatekoa da ezagutzan ere alde handia dagoela gurasoetatik aitona-amonetara: adin talderik erdaldunena osatzen dute aitona-amona izateko adinean daudenek.



*Iturria: Siadeco.*

## Gogoeta

Umeeiko harremanetan erabiltzen da euskara gehien Tolosan, kaleko erabileraren neurketak aldiz aldi erakutsi duenez. Ezagutzaren eta erabileraren arteko jauzirik txikiena hor dago.

Gurasoen artean oso-oso hedatua dago haurrekin euskaraz jardutea, nahiz eta horietako batzuk erdaraz aritu gainerako esparruetan.

*«Ezagutzen ditut bikote asko euskaraz badakitenak baina bigarren hizkuntza gisa erabiltzen dutenak. Umeari, bai, euskaraz egiten diote»*


*«Gurasoen artean entzuten da erdara, kuadrillan bertan, nahiz eta denek jakin euskaraz. Umeekin egiten dute euskaraz»*

Gogoan izatekoa da haurrekin euskaraz egiteko garaian badela kontuan izateko aldagai bat: ez dute hizkuntza gaitasun handia eskatzen, eta euskaraz erraztasunik ez dutenek ere joera dute umeekin euskaraz aritzeko. Kontua da zer gertatzen den umeak hazi ahala, solasaldien maila igo ahala. Joera erakusten du oraingo gurasoek beren aita-amekin izan duten eboluzioak: umetan baino gutxiago egiten dute euskaraz orain. Joera hori nabari dute orain ere guraso batzuek beren seme-alabekin.

*«11 urteko umea daukagu, eta gertatzen ari zaigu umearekin ere gero eta gehiago egitea gaztekeraz. Nerabezaroaren atarian dago: liskarrak, solasaldi serioagoak... Egoera horretan, nik ere badut joera gaztelaniara pasatzeko»*

## 1.6. Gako nagusiak

Erabileran giltzarri diren elementuak bistan jarri dira datuetan eta gurasoekiko elkarrizketetan. Batetik, ingurua: esparruko hizkuntza ezagutzak eragina du erabiltzeko aukeretan, eta, hortaz, baita erabileran bertan ere —lagunartean eta lantokian, nabarmen—. Bestetik, erraztasun erlatiboa: zenbat eta erosoago, aiseago, errazago egin euskaraz, handiagoa da haren erabilera. Areago, ez da aski norberaren erosotasuna: solaskidearen gaitasun erlatiboa ere giltzarria da euskara erabiltzeko —bikoteko harremanetan, adibidez, nabarmena da horren isla—.




*Iturria: Siadeco.*

Izan ere, solaskidea nor den, guraso euskaldunek gehiago edo gutxiago egiten dute euskaraz. Aztertu diren esparruen artean, nabarmena da umeekin egiten dela euskaraz gehien: hamarretik bederatzik baino gehiagok egiten diete umeei euskaraz. Gainerako arloetan, berriz, erabilera ez da %70etik pasatzen. Kontuan izatekoa da ezagutza ere umeen kasuan dela handiena —unibertsala—, eta horrek eragina duela erabileran. Hala ere, ezagutzatik erabilerara salto handiagoa nabari da gainerako esparruetan, batez ere bikotean: %29ko galera.

**30. Grafikoa**

Euskararen ezagutza eta erabilera, esparruka (%)



*Iturria: Siadeco.*


Esparruz esparruko gorabehera horien joera alderatu da Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoarekin —zehazki, laugarren gune soziolinguistikoko euskaldunen erabilerarekin—, eta joera bera ageri da, zenbakietan aldeak egon arren: lagunak lehenik, lantokia ondoren, eta bikotea azkenik. Konparazio horretatik kanpo utzi da seme-alabekiko eta gurasoekiko erabilera, adin gorabeherak desitxuratu egin dezaketelako errealitatea —inkesta soziolinguistikoan, izan ere, 16 urtetik gorako herritar guztiak sartzen dira, eta Tolosako kasuan guraso euskaldunak soilik hartu dira kontuan; euskararen erabileran aldea egon ohi da gurasoen eta seme-alaben adinaren arabera, eta hori saihesteko, ez dira sartu datu horiek—.



**31. Grafikoa**

Euskararen ohiko erabilera esparruaren arabera (%)

■ Tolosa gurasoak  
■ 4. eremu soziolinguistikoa



*Iturria: Siadeco, Eusko Jaurlaritza. Siadecok landua.*

Ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak aztertu dira orain arte, baina bien artean badago beste aldagai inportante bat: etxean jasotako hizkuntza. Euskaraz jarduteko erraztasunarekin estu lotuta dago aldagai hori, eta erabiltzeko ohiturarekin ere bai.

### 2.1. Lehen hizkuntza eta erraztasuna

Erraztasuna eta lehen hizkuntza alderatuta —umetan etxean ikasitako hizkuntza—, nabari da koska dagoela. Lehen hizkuntza euskara dutenen ia erdiak errazago mintzo dira euskaraz (%48); etxean euskara eta erdara jaso zituztenen artean laurdenera jaisten da portzentajea (%25); eta etxean euskara jaso ez zutenetan, %6k egiten dute aiseago euskaraz.

**9. taula.** Hitz egiteko erraztasuna, lehen hizkuntzaren arabera.

Lehen hizkuntza	Euskaraz errazago (%)	Bietara berdin (%)	Erdaraz errazago (%)
Euskara	48,4	48,1	3,5
Biak	24,5	63,9	11,6
Erdara	6	44,6	50,4

*Iturria: Siadeco*

Lehen hizkuntzaren eta erraztasunaren arteko harreman estua nabarmena da beste ikerketa batzuetan ere. Adibidez, aztertzen badira azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak (2016) bi aldagai horiek gurutzatuta, nabari da korrelazioa: euskara etxean jaso dutenek aiseago egiten dute euskaraz. Ez da harrizkoa: batetik, gaitasuna eskuratu dutelako umetatik, eta, bestetik, erabiltzeko aukera izan dutelako hurbilenera eremuan.

**10. taula.** Euskaldunen lehen hizkuntza eta hitz egiteko erraztasuna Euskal Herrian (2016).

	Euskaraz errazago (%)	Bietara berdin (%)	Erdaraz errazago (%)
Euskara	47,0	37,0	16,0
Biak	13,0	40,0	47,0
Erdara	2,0	15,0	83,0

*Iturria: Inkesta soziolinguistikoa. Euskararen Adierazle Sistema.*

Diferentzia bat, bai, badago Tolosako guraso euskaldunen datuen eta inkesta soziolinguistikokoaren artean: lehen hizkuntza erdara edo biak dituztenen erraztasuna. Etxean erdara ikasi zuten guraso euskaldun tolosarren %51k erdaraz bezain erraz edo errazago egiten dute euskaraz; Euskal Herriko datuetan, berriz, %17 dira. Etxean biak jaso zituzten guraso euskaldun tolosarren %88k egiten dute euskaraz erdaraz bezain aise edo aiseago, eta Euskal Herriko euskaldunen %53k.

Diferentzia horiek mahai gainean jartzen dute hizkuntza sozializazioaren eragina. Alegia, lehen hizkuntzak garrantzi handia du erraztasunean, eskolan ikasitakoak ere bai, baina ezin dira ahaztu beste faktore batzuk ere: kalea, lagunartea, lantokia... Hizkuntza ibilbide osoa, finean. «Norbere ibilbide linguistikoak asko markatzen du. Zein harreman sare izan dituen, horiek zer hizkuntzatan garatu diren, eragina du gaitasunean; eta gaitasunak, erraztasunak, mintzatzeko ohitura finkatzen du», azaldu du Xabier Bengoetxea irakasleak. «Jende askok euskaraz egiteko ohitura hartu du horretara *behartu* duelako bere harreman sareak: lantokiak, lagunartean, ikastetxeak... Horrek gaitasuna areagotu die, eta erraztasun horrek bultzatu ditu erabileran urratsak egitera».

Lehen hizkuntza eta erraztasuna lotzen dituzte guraso batzuek ere, talde dinamiketan agertu denez. Erraztasuna bi kontzepturekin erlazionatzen dute zehazki: *ama hizkuntza* eta *euskaldun berri*. Gehienetan, hutsuneak seinatzeko.


*«Nire senarra euskaldun berria da, ez du gaizki egiten, baina gauza serioei buruz hasten garenean ezin du euskaraz pentsatu»*

*«Uste dut nire ama hizkuntza hor dagoela, eta erosoago nago gaztelaniarekin»*

*«Ama hizkuntza garrantzitsua da»*

## 2.2. Transmisioa, genero ikuspegitik

Datuek erakutsi dute erraztasunak baduela harremana lehen hizkuntzarekin. Transmisioarekin, finean. Alde horretatik, interesgarria da belaunez belauneko transmisioaren eragina aztertzea. Genero ikuspegitik erreparatu zaio horri: guraso euskaldunen erraztasuna alderatu da haien amaren eta aitaren ezagutzarekin. Amaren ezagutzarekin korrelazio handiagoa ageri du erraztasunak. Hara: euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago egiten dutenen %80k ama euskalduna dute, eta %71k, aita euskalduna; aldiz, erdaraz errazago egiten dutenen %35ek dute ama euskalduna, eta %38k aita euskalduna.



*Iturria: Siadeco.*

Transmisioa genero ikuspegitik aztertu izan denean, agertu dira horrelako gorabeherak: amaren eragina handiagoa dela. Adibidez, 1994an Siadecok berak egindako azterketa batean (*Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*) sumatu zen joera hori, edo 2009an Siadecok Irunen familiako transmisioa indartzeko egindako beste batean: ama euskalduna zenean handiagoa zela euskararen transmisioa. Beste herri batzuetako ikerketetan ere agertu da diferentzia hori; adibidez, Gasteizen (Oruesagasti, Arakistain, Otaegi: 2014): «Hizkuntzaren transmisioa amari lotua dago, oraindik ere, eta amaren hizkuntza-identitateak aitarenak baino pisu handiagoa du». Ikerketa batzuetan aztertu dituzte horren

oinarriak (Altuna eta Hernandez: 2018): «Euskararen erabilpena etxean eta familian ziurtatu behar zen, eta emakumeak (amak) ziren horren arduradun nagusiak».

Euskararen transmisioan emakumeek izandako garrantziarekin ados azaldu dira oro har gurasoen dinamiketan. Batez ere emakumeek sumatzen dute hori —eta batez ere haiek parte hartu dute talde elkarrizketetan eta inkestan—:

*«Nik ama dut euskalduna. Aita izango balitz, seguru aldea egongo zela»*

*«Hori egiaztatua dago: zerbaitengatik esaten zaio ama hizkuntza»*

*«Inportantea da umeak nork hezi dituen, eta gehienetan ama da»*

*«Emakumeen zaintza rola izan dute, eta tartean dago hizkuntza. Ni naiz adibidea: aita erdalduna da, eta ama, euskalduna. Etxean euskaraz egin izan dugu beti, aitak ulertzen zuelako; izatez, gaztelaniaz ez naiz hain ondo moldatzen. Alderantziz izan balitz, ama izan balitz erdalduna, etxeko hizkuntza erdara izango zen. Ama zegoen etxean, eta amak egin digu transmisioa»*

*«Guri amak transmititu zigun, nabarmen»*


Areago, guraso batzuek erabileran ere nabari dute aldea —Euskal Herriko kaleko erabileraren neurketak erakutsi du badagoela diferentzia; Tolosako neurketetan ez dute sexua jasotzen—:

*«Mutil kuadrillak gehiago ikusten ditut gaztelaniaz»*

*«Gizonek gizonekin joera handiagoa dute erdarara jotzeko, emakumeek emakumeekin baino. Hori, gaztetatik: nesken kuadrilletan gehiago egiten zen euskaraz»*

### 2.3. Transmisioaren aurrerapena

Euskararen transmisioan aurrerapausoa izan da, guraso euskaldunen inkestak erakusten duenez. Aita-amen %57k adierazi dute umetan euskara jaso zutela etxean; umeei euskara transmititu dietenak %74 dira. Beste laurden batek pasatxok dio euskara eta gaztelania ikasi zituela etxean (%27), eta biak transmititu dituztenen portzentajea zerbait txikiagoa da (%23).



*Iturria: Siadeco.*

Transmisio hori sakonago aztertuta nabari da diferentziak non dauden. Etxean euskara soilik jaso zuten guraso guztiek transmititu dute —%14k, gaztelaniarekin batera—, eta etxean erdara ikasi zuten ia denek ere bai, %95ek baino gehiagok. Etxean erdara soilik edo euskararekin batera jaso zutenen artean handiagoa da bi hizkuntzak transmititzeko joera: biak ikasi zituztenen kasuan, herenek biak transmititu dituzte (%31), eta erdara ikasi zutenen kasuan, ia erdiek (%47). Horren zergatik aztertzerakoan, kontuan izan behar da bikotekidearen eragina —bikote mistoetan ohikoagoa da euskara ez ezik erdara ere transmititzea, gurasoetako bat erdalduna denez—.

**11. taula.** Transmittitutako hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera.

Transmittitutako hizkuntza	Euskaraz lehen hizkuntza	Biak lehen hizkuntza	Erdara lehen hizkuntza
Euskara	86,1	68,0	48,2
Biak	13,9	30,6	47,0
Erdara	0,0	1,4	4,8

*Iturria: Siadeco.*

Hala ere, aztertzekoa da bi hizkuntzak transmititzearen oinarrian gurasoen hautua ere ba ote dagoen. Hori sumatu dute ikerketa batzuek, izan ere; adibidez, hiztun berriekin, euskara etxetik kanpo jaso duten gazteekin (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla; 2016): «Gazteak 'bi hizkuntzen' transmisioaren alde azaltzen dira, eta arrazoibide moduan esaten dute 'bi hizkuntzak ondo ikas ditzaten'». Tolosako guraso euskaldunekin egindako inkestan eta talde elkarrizketetan ez da atera argudio hori zuzenean transmisioarekin lotuta, baina bai kezka gisa, edo umeak koskortutakoan hartu duten jokabideari begira:

*«Nik nahi dut nire umeek gaztelaniaz ere ondo hitz egitea. Nik ez dut ondo egiten, eta nahi dut nik baino hobeto egin dezatela. Euskaraz badakit ondo egingo dutela; neuk eman diet»*

*«Liburuak gaztelaniaz ere hartzen dizkiet, eta tarteka irakurtzen dizkiet; aberasgarria da, ez daitezten egon 8-10 urterekin gaztelaniaz ezer ez dakitela. Ez nago obsesionatuta: 'Euskara, euskara, euskara'. Beste hizkuntzak ere sartzen ditugu tarteka»*

Gurasoen talde dinamiketan, gai horren bueltan, hizpidera atera da beste hizkuntza bat ere: ingelesa. Ez da gurasorik agertu etxean seme-alabei ingelesa ahoz transmititu dienik, baina bai horrekin kezkatuta dauden aita-amak, eta etxean lekua egiten diotenak.

*«Umeekin saiatzen gara euskaraz ez bada ingelesez jartzen marrazki bizidunak, beste hizkuntza bat sartzeko»*

*«Joera badago ingelesa gaztelaniaren gainera jartzeko. Guraso askok, ez diete umei uzten marrazki bizidunak gaztelaniaz ikusten: euskaraz edo ingelesez»*

*«Guraso askok esaten dute ingelesa sartzeari buruz: 'Ondo etorriko zaio, ezta?！」*

*«Ingelesarena, askotan, gurasoen frustrazioaren ondorioa da: nire kasuan, adibidez, ingelesa nire arantza izan da, eta nahi dut nire umeek azkar eta ondo ikastea. Eskola partikularretara eramaten ditut»*

*«Guraso askok esaten dute: 'Nik ez nuen ikasi, eta nahi dut haurrak ikastea'»*

Adituek ere ohartarazi dute horrelako jokabideez. Samaniero ikastetxeko hizkuntza arduradunak, adibidez, sumatu ditu halakoak: «Ezer baino gehiago seme-alabak ingelesean murgildu nahi dituzten gurasoak, 'gaur egun oso inportantea delako'. Jokaera hori duten zenbait guraso ezagutu ditut eskolan, eta benetan zaila da haien kontzientzian eragitea».

#### 2.4. Ohituren transmisioa

Kuantifikatzen zailagoa den transmisio eredu bat ere bada: hizkuntza ohituren transmisioa. Horren garrantziaz ados datoz adituak: ezagutza bakarrik ez, erabiltzeko ohitura ere transmititu egiten da. Zer ikusi, hura ikasi. «Gurasoak eredu dira umeentzat, batik bat lehen haurtzaroan. Ezagutza transmititzeaz gain, erabilera kodeak, hizkuntza hori erabiltzeko motibazioa, ematen dioten prestigioa, erabiltzeko ohiturak, erabilera arauak, eta abar ere transmititzen dira oharkabeaz», azaldu du Bengoetxeak. Horren garrantziaz ohartarazi du Artolak: «Gurasoak ohartu behar dira ez dela nahikoa haurrei euskaraz egitea: une bakoitzean ari gara gauzak transmititzen».

Talde dinamiketan parte hartu duten gurasoak, oro har, bat datoz horrekin:

*«Etxean erdaraz egiten bada, nahiz eta umei euskaraz jardun, azkenean umeak ohitura hori hartzen du»*

*«Bikoteak ez badu euskaraz egiten, umeak jasotzen duena da euskara umeen hizkuntza dela: 'Guri euskaraz egiten digute, baina helduek beren artean, gaztelaniaz'. Eta umeen nahia da heldu izatea, eta imitazioz, gaztelaniara joko du»*

*«Nik egiten dut: umeari euskaraz egiteko esan, eta nik erdaraz egin»*

*«Alabari exijitzen diogu euskaraz egitea, eta gu konturatzen gara askotan, ohiturarekin lotuta, erdarara jotzeko joera dugula. Umeak esaten digu: 'Niri esaten didazue euskaraz hitz egiteko, eta zuek zergatik egiten duzue erdaraz?'»*



*«Ezin diozu norbaiti eskatu zeuk egiten ez duzuna: eredu izan behar duzu»*

*«Gu konturatu ginen umeak guregatik ari zirela gaztelania gehiago erabiltzen etxean. Horregatik aldatu genuen gure hizkuntza, nahiz eta askotan berriro gaztelaniaz aritzen garen. Baina behintzat umeak daudenean saiatzen gara»*

Gurasoekin nola landu, beraz, hizkuntza ohiturak transmititzearen garrantzia? «Eredu eta ispilu» direla ohartarazi behar zaie, Bengoetxearen ustez. Eta beste gako bat: eskolarekin elkarlanean aritzea. «Hizkuntzaren lanketa ez dela hezkuntzaren zeregina bakarrik, gurasoek ere lankidetzan jardun behar dutela, eskolaren osagarri, eta alderantziz». Antzera hitz egin du Laskorain ikastolako ordezkari Helena Baraibarrek: «Eskolak, ikasleak ez ezik, gurasoak ere hezi behar ditu. Esku hartze hori ez da une jakin batekoa: behin eta berriz gogora ekartzeko gaia da, eta hezkuntza prozesuan txertatzekoa». Eskolak bakarrik ezin baitu, Herrikide ikastetxeko kide Joseba Antxustegietxartek ohartarazi duenez: «Balioen eta ereduaren kontua gehiegi murriztu da irakaskuntzara».

Adituek ontzat jo dute gurasoentzako mezu hau: *Zuk egiten ez baduzu, haiek ere ez*. Hala esan du Artolak: «Egia esan behar zaie: zerbait egiten duzunean transmititzen diozuetik ikasiko du umeak, eta ez zuk esaten duzuetik». Eredu hori osatu egin behar dela uste du Amonarriek: «Aberastu eta osatu egin behar da: 'ikas ezazu berarekin', 'zuen harremanak hobetu'...». Antzera, Mateo: «Mezu hori eman behar zaie, nahiz eta beti baliagarria ez izan. Horrekin batera, lagungarria litzateke adieraztea seme-alabentzat zein lagungarria den euskara ondo menperatzea».

## 2.5. Arnasguneen eragina

Hizkuntzaren transmisioari dagokionez, aipatzekoa da Tolosa euskalduntzen inguruko herri txikiak izan duten eragina —euskararen arnaguneak dira horietako asko, herri txikiak—. Eskualdeko 23 herri euskaldunenak hartuz gero<sup>1</sup>, inkestatuen %18k dute herri horietako batekoa aita edo ama; aldiz, etxean euskara jaso dutenak soilik hartuta, %26k dute herri horietako gurasoren bat.

Areago, guraso euskaldunek beren aita-amekin duten hizkuntza erlazioa aztertuta, nabari da aldea aita-amen jaioterriaren arabera: euskararen erabilerari gehiago eutsi diote arnaguneetakoek. Hara: umetatik gaur egungo erabilerara, 16 puntuko galera dago aita-ama tolosarrak direnean, eta 6 puntukoa herri txikienetako kasuan.

**12. taula.** Guraso euskaldunek aita-amekin duten hizkuntza erabilera, haien jaioterriaren arabera

	Gehienbat euskaraz (%)		Bietara berdintsu (%)		Gehienbat erdaraz (%)	
	Umetan	Orain	Umetan	Orain	Umetan	Orain
<b>Tolosa</b>	<b>59,0</b>	<b>43,0</b>	<b>15,5</b>	<b>17,2</b>	<b>23,2</b>	<b>34,1</b>
Villabona, Zizurkil, Ibarra, Anoeta	75,8	65,1	8,5	11,7	14,6	22,1
Alegia, Asteasu, Belauntza, Berrobi, Hernialde, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza	83,0	76,8	11,6	12,5	4,5	7,1
Eskualdeko gainerako herriak	92,0	85,5	6,7	9,8	1,4	3,4
Gipuzkoako beste herri bat	67,3	56,1	11,0	14,6	20,9	25,7
Euskal Herriko beste herrialde bat	54,8	44,1	16,1	18,5	29,2	31,0
Espainiako beste erkidego bat	18,3	10,4	18,3	22,5	62,5	66,2
Espainiatik kanpoko herrialde bat	27,8	5,6	15,6	27,8	51,1	61,1

*Iturria: Siadeco.*

1 Honako hauek dira: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain eta Orexa.

Eskualdeko arnasguneen eragina gurasoekiko transmisio horretatik haragokoa dela diote adituek: Tolosako egunerokoan eta bilakaera soziolinguistikoan arrasto sakona dutela. Elkarreragina aipatu du Bengoetxeak: «Historikoki izan da eragina, eta hizkuntza kontuetan areago. Nabaria da Tolosa, hein handian, linguistikoki bederen, inguruko herrietatik elikatu dela». Antzera mintzo da Amonarriz: «Neurri handian, inguruko herri txikiei esker mantendu du Tolosak bere euskalduntasuna. Gerra ondorenean, tolosarren artean euskara ia erabat galdu zelarik eta transmisioa eten, neurri handian herri txikietatik etorritakoek eutsi zioten transmisioari, eta herri txikietakoen erabilerari esker entzuten zen euskara Tolosan».

Eskualdeko hiriburua da Tolosa, erdigune nabarmena, eta arnasguneetako eragina bi aldetatik nabari da, Bengoetxeak azaldu duenez: «Bai inguruko herrietatik bizitzera etorritakoek euskaldunago egin dutelako, bai sarritan lana eta aisialdia bertan bideratzen dutelako, nahiz eta bertan ez bizi». Bat dator horretan Artola Galtzaundiko teknikaria, eta gainerako adituek aipatutako argudio bat erabili du: kaleko erabilera neurtzean diferentzia adierazgarriak ageri direla egunaren arabera. Aldiz aldi, larunbat goizetan egindako neurraldian ageri da euskararen erabilera handiena —larunbat goizean ez ezik, neurketak egiten dituzte larunbat arratsaldean, igande goizean, eta asteazken goiz-arratsaldean—. Larunbat goizetako igoera hori azokarekin lotu izan dute: bilgune izan ohi da Tolosako azoka larunbatetan, eta eskualdeko arnasguneetako jende ugari joan ohi da. Orain urte batzuk oso adierazgarria zen diferentzia, baina pixkanaka gutxitzen ari da —2018ko neurketan, adibidez, solasaldien %49 entzun zituzten euskaraz, batez bestekoa baino lau puntu gehiago—. Diferentzia txikitze hori bat dator Tolosan euskaldunen portzentajeak gora egitearekin eta arnasguneetako geldialdiarekin. Arnasguneetako herritarren eragin «positiboa» nabarmendu du Mateok, baina ezin dela uste izan erabat-erabat euskaraz egiten dutenik Tolosara joatean: «Euskara erabiltzen dute normaltasunez, eta horrek izugarritzko eragina du Tolosako zerbitzuetan: dendak, tabernak... Tolosarrekin dituzten bestelako harremani dagokienez (kuadrillak, familiak...), bi aldetako joerak daude: Tolosako zenbait gunetan gaztelaniaz hitz egitera ohitu diren arnasguneetako biztanleak, zein ingurukoak euskaraz hitz egiten ohitzea lortu dutenak».

Gogoan izatekoa da, nolanahi ere, arnaguneetako galera oso nabarmena dela Tolosaldean. Hara: 23 herririk euskaldunenetan jaitsi egin da euskaldunen portzentajea, eta etxeko erabilera Tolosan ez eskualdeko beste herri guztietan jaitsi dira azken 30 urteetan —herri batzuetan 25 puntuko galera ageri da—.

Herri txikien eragina nabari dela diote gurasoek ere. Kaleko erabileran nabari dute, esate baterako:

*«Herri txikietatik etorritako jende asko bizi da Tolosan, eta badu zerikusia»*

*«Nabaritzen da. Askotan gertatzen dena da tolosarrek erdaraz jartzea herri txikietakoak»*

*«Gurasoak Tolosakoak bertakoak dituzten lagunek joera handiagoa dute erdaraz egiteko; horietako askok erdaldunak dituzte etxean»*

*«Hitanoan nabaritzen da, adibidez: herri txikietako gurasoak dituztenek erraztasuna dute hika, eta Tolosan bertan ez da egiten»*

Ikastetxeetan ere nabari dituzte diferentziak. Adibidez, sare publikoan, institutu garaian etortzen dira inguruko herri txikietako ikasle asko Tolosara, eta ikasle tolosarrekin nahasten dira:

*«Umeak Samaniegotik Orixera pasatu direnean, inguruko herrietako jendea etorri da, eta hitz egiteko era ere aldatu dute»*

*«Diferentzia askoz nabarmenagoa zen lehen, BUP garaian, Tolosako erabilera ez zelako hain altua. Orain erabilera altua da»*

Herri txikietako euskaldunek euskaraz egiteko duten joera handiago horrek ekarri zituen aurreiritzi ezkor batzuk, gurasoek ohartarazi dutenez:

*«Baserri inguruak ekarpen handia egin du euskarari eusten»*

*«Euskara baserriarekin lotzea ekarri du horrek: euskaldunak baserritartzat hartzea eta...»*

*«Tolosako euskalduntze prozesuak eragiten die inguruko herri txikiei. Garai batean, herri handiak oso erdaldunak ziren, eta kaxero kontu horiekin saiatzen ziren jende hori erdalduntzen. Tolosak hiri funtzioa du, eta gaur egun ez dago horrelako joerarik. Ez da txarra»*


## 2.6. Eskola

Belaunez belauneko transmisioari erantsi behar zaio irakaskuntza. Tolosan D ereduan ematen dituzte ikasketa orokorrak: euskara da irakats-hizkuntza. Unibertsoan sartu diren ikasleen %100ek euskaraz ikasten dute, beraz. Ez zen berdin gertatu gurasoekin. Horietan ere gehiengoa da gehienbat euskaraz ikasi zutenen portzentajea (%71), baina ia lautik batek gaztelania izan zuen irakats-hizkuntza (%22), eta beste %5ek, euskara eta gaztelania.

Nabaria da eskolak ekarritako aurrerapausoa, belaunaldi batzuetan ia ezagutzaren unibertsalizazioa iristea ekarri baitu. Baina gaitasunari dagokionez aldeak ageri dira. Hara: etxean euskara jaso zutenen %96k gaztelaniaz bezain erraz edo errazago egiten dute euskaraz; etxetik kanpo euskaldundu zirenen kasuan, berriz, %51k.

## 2.7. Hitz egitea eta irakurtzea

Erraztasunarekin lotuta, aztertzekoa da trebetasunaren araberako diferentzia. Hiru guraso euskaldunetik batek errazago hitz egiten du euskaraz (%35), baina irakurri, zazpitik batek (%14).



*Iturria: Siadeco.*

Alderik adierazgarriena euskaraz hitz egiteko erraztasuna daukatenen artean nabari da: gutxiengoa da erdaraz baino aiseago irakurtzen duena (%38), nahiz eta hala hitz egin.

Gurasoekin egindako talde elkarrizketetan hizpide izan da diferentzia hori: euskaraz aiseago egiten duten euskaldun askok zergatik dituzten zailtasunak euskaraz irakurtzeko. Nabarmena da ohitura faltaren eragina: askok urteetan ez dute ezer irakurri euskaraz, eta atzendu egin zaie gaitasuna.

*«Errazago ulertzen dut erdaraz, nahiz eta euskaraz errazago hitz egin. Irakurritakoa ulertzeko, nahiago erdaraz»*

*«Liburuak nahiago erdaraz, igual horretara ohitu naizelako»*

*«Testu juridikoak-eta ezinezkoak egiten zaizkit euskaraz»*

*«Euskaraz ikasi dugun askok eskatzen dugu komunikazioa ele bietan. Nik ere askotan begiratzen dut gaztelaniazkoa, ondo ulertzeko»*

*«Erdaraz errazagoa egiten zait. Euskaldun zaharra naiz, bi gurasoak euskaldunak, ingurua euskalduna da... Baina irakurri erdaraz egiten dut gehiago»*

*«Eskolako paperak ele bietan eskatzen dituzten guraso asko euskaldunak dira. Erdaraz irakurtzera ohituago daude»*

Beste motibo bat ere eman dute gurasoek: gaztelaniaz alfabetatuta daudela, eta nekez irakurtzen dutela euskaraz. Areago, erabiltzen den euskara eredu ere aipatu dute ez irakurtzeko motibo gisa.

*«Erdaraz egin nituen ikasketak. Gehiago saiatu beharko nuke euskaraz irakurtzen, baina erdarara salto egiten dut. Hobeto ulertzen dut»*

*«Azken ikasketak erdaraz egin nituen, eta erdaraz irakurtzea errazago egiten zait. Askotan, errazenera jotzen dut»*

*«Batuetan hizkera artifiziala zait: hitz batzuk oso berriak dira. Euskara batuak jo duen saltoa ez du eman erdaraz, eta erdarazko izenak ezagunagoak zaizkigu»*

*«Jatetxeetako menuak saiatzen naiz euskaraz irakurtzen, baina erdarazkora jo behar izaten dut, ez dudalako euskarazkoa entenditzen»*


Ahozko erabileraren nondik norakoak aztertu ondoren, beste erabilera mota batzuk hartu dira aztergai: euskarazko hedabideen eta kulturaren kontsumoa. Dударik ez dago horien kontsumoak baduela lotura euskararen erabilerarekin, eta hizkuntza ohiturek badutela zerikusia.

Adituak bat datoz arlo hori funtsezkoa dela euskararen erabileran. Gizarte ohituren aldaketarekin, gainera, gero eta garrantzi handiagoa dute hedabideek eta kulturaren arloak. «Gertuko harreman sareez gain (familia, lagunartea...), harreman sare birtualek eta zirkuitu kulturelek inoiz baino pisu handiagoa dute pertsonaren gizarteratzean edo sozializazioan», azaldu du Bengoetxeak. «Bigarren sozializazioak (kulturalak) inoiz baino garrantzi handiagoa du: euskalduna izanik ere, bigarren sozializazio hori ezean, ahul geratzen da euskalduntasun hori, eta mehartzen joaten da». Beste hiru arrazoibide ere eman ditu Amonarrizek. Batetik, gaitasuna: euskaraz kontsumitzeak areagotu egiten duela hizkuntza horretako gaitasuna. Bestetik, erreferentziak: hizkuntza bakoitzak dituela bere erreferenteak. Eta, hirugarrenik, unibertso komuna: unibertso oso bat eskaintzen duela hizkuntzak. Haren arabera, beraz, kontsumoa erabilerarekin lotuta dago zuzenean: «Euskaraz kontsumitzen duzun neurrian, euskara gehiago egiten duzu. Esate baterako, haurrek euskarazko telebista ikusten badute, euskaraz komentatuko dute, eta erdarazkoa ikusten badute, erdaraz».

Garrantzi horrekin bat etorrira, komunikazioaren arloko berrikuntzez ohartarazi dute Artolak eta Antxustegietxartek. Erronka handia dela ohartarazi du Galtzaundiko teknikariak: «Gero eta hizkuntza transmisio handiagoa jasotzen da pantailaren bidez. Telebista jada zaharkituta geratzen ari da; orain sakelako telefonoa dago mila bideorekin, eta websailak, nahieran ikusteko moduan. Egiazki erronka potoloa dugu horren aurrean». Atzeratuta ote dabilen euskalgintza, kezka hori du Herrikide ikastetxeko ordezkariak: «Hor gabiltza EITBekin oraindik bueltaka, eta pilatzen ari zaizkigu Interneteko youtuberrak, musikak eta erraz irensteko produktu mordoak».

### 3.1. Ikus-entzunezko hedabideak

Irratiaren eta telebistaren kontsumoari dagokionez, hiru datu lortu dira inkestaren bitartez: gurasoen telebista kontsumoa, seme-alaben telebista kontsumoa eta gurasoen irrati kontsumoa. Alde adierazgarriak daude. Irratia da, zalantzarik gabe, euskararen indargune nagusia: hamar gurasotik lauk beti edo beti entzuten dute irratia euskaraz, eta beste %15ek, erdaraz baino gehiago. Ez da galdetu kate zehatzei buruz, baina uste izatekoa da Euskadi Irratia dagoela datuen oinarrian. Telebistan ahulagoa da euskarazko kontsumoa, eta aldea dago gurasoetatik seme-alabetara. Umeen eta gaztetxoek kasuan, hamarretik hiruk ikusten dute telebista euskaraz gehiago; gurasoetan, %8k. Telebista eta irratia alderatzean, kontuan izan behar da oro har telebistaren kontsumoa handiagoa dela denbora aldetik —Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2013an egindako *Hedabideak* ikerketaren arabera, hiru herritarretik bik pasatzen dute egunean ordubete baino gehiago irratia entzuten (%65), eta bostetik lauk telebista ikusten (%80)—.



*Iturria: Siadeco.*

Hizkuntza ohituren gisan, hedabideen kontsumoan ere giltzarri dira etxeko ohiturak. Alderatzen badira umeen kontsumoa eta gurasoena, argi ikusten da: gurasoek euskarazko komunikabideak kontsumitu ohi badituzte, umeek ere gehiago jotzen dute horietara. Berdin gertatzen da etxeko hizkuntzarekin ere: etxean euskara ikasi duten umeen herenek baino gehiagok ikusi ohi dute telebista batez ere euskaraz



(%35); euskara eta gaztelania, biak ikasi dituztenen artean, berriz, %15era jaisten da portzentaje hori.

Gurasoen artean ere nabari da etxeko hizkuntzaren eta hedabideen kontsumoaren arteko lotura hori. Bikotekidearekin euskaraz aritzen direnen %52k ikusten dute telebista euskaraz, erdaraz adina edo gehiago; bikotekidearekin bi hizkuntzetan aritzen direnen kasuan %35ek; eta erdaraz aritu ohi direnetan, %22k. Irratian ere joera bera ageri da.

**13. taula.** Telebista eta irrati kontsumoa, bikoteko hizkuntzaren, etxean ikasitako hizkuntzaren eta gurasoen telebista kontsumoaren arabera.

		Beti edo ia beti euskaraz	Bietara berdin	Beti edo ia beti erdaraz	Kontsumorik ez/ Erantzunik ez
<b>Gurasoen telebista kontsumoa</b>					
Bikoteko hizkuntza	Euskaraz gehiago	12,7	39,4	38,8	9,1
	Bietara berdin	2,2	33,3	62,2	2,2
	Erdaraz gehiago	2,4	19,5	68,0	10,1
<b>Seme-alaben telebista kontsumoa</b>					
Etxean ikasitako hizkuntza	Euskara	35,4	35,9	24,6	4,2
	Biak	14,8	32,0	48,4	4,7
	Erdara	20,0	20,0	60,0	0
<b>Gurasoen telebista kontsumoa</b>					
Gurasoen telebista kontsumoa	Euskaraz gehiago	21,1	43,2	29,4	6,3
	Bietara berdin	4,8	47,6	42,3	5,3
	Erdaraz gehiago	1,1	9,3	77,9	11,7
<b>Gurasoen irrati kontsumoa</b>					
Bikoteko hizkuntza	Euskaraz gehiago	73,3	12,4	8,1	6,2
	Bietara berdin	40,0	25,6	24,5	10,0
	Erdaraz gehiago	28,1	25,8	34,4	11,7

*Iturria: Siadeco.*

Gurasoen talde dinamiketan batez ere gai bati heldu diote irrati-telebistaren kontsumoari dagokionez: eskaintzari. Nabarmendu dute erdarazko eskaintza askoz ugariagoa dela euskarazkoa baino, aukera gehiago dagoela erdaraz, eta horrek

dakarrela askotan erdarazko telebistaren aldeko hautua egitea. Horrekin batera, kritikak nabari dira ETBren jardunarekin.

*«Askotan, ez da hizkuntzagatik. Segun zer programa interesatzen zaizun... Kontua ez da hizkuntza bakarrik: ea zer topatzen duzun gustukoa»*

*«Gaztelaniaz askoz aukera handiagoa dago»*

*«Hainbeste dago aukeratzeko, askotan eskuetara lehenbizi iristen zaizuna hartzen duzu»*

*«Telesailak ikusi ohi ditut, eta euskaraz ez dago»*

*«ETB ez dut ikusten, ez duelako merezi. Pilota ez bazaizu gustatzen, jai daukazu»*

*«Eskaintza handiagoa dauka ETB2k»*

*«Itzulpen batzuk artifizial xamarak dira»*

Seme-alabei dagokienez ere eskaintzaren faktorea nabarmendu dute gurasoek, eta, areago, telebista ikusteko aukera berriak hartu dituzte hizpide: kateen kopurua, nahieran ikusteko aukera... Uste dute horren eskutik batez ere erdarazko eskaintza ugaldu dela, eta euskarazko telebista kontsumoari eragin diola horrek.

*«Guk gehiago ikusten genuen euskaraz gure seme-alabek baino»*


*«Guk zegoena ikusi behar genuen; orain ikusteko modua aldatu da, eta nahi dutena ikus dezakete nahi dutenean»*

### 3.2. Papereko hedabideak

Papereko hedabideei dagokienez, galdetu da etxean zein hizkuntzatako egunkariak eta aldizkariak dituzten gurasoek. Adierazgarria da lautik batek ez duela batere izaten —papereko hedabideen gainbehera erakusten du—. Papereko komunikabideak edukitzen dituztenen artean, erdiek erdarazkoak dituzte gehiago, eta herenek, euskarazkoak.

**36. Grafikoa**

Papereko hedabideak etxean (%)



*Iturria: Siadeco.*

Etxean egoten diren papereko hedabideak eta gurasoen arteko hizkuntza harremanak gurutzatuta, ageri dira diferentzia batzuk. Euskaraz aritzen direnek izaten dute aldizkari gehien etxean, eta euskaraz gehiago. Alde nabarmena dago euskaraz aritzen direnetatik bi hizkuntzan egiten dutenetara.

**14. taula.** Papereko hedabideak etxean, bikoteko hizkuntzaren arabera.


		Gehienak euskaraz	Bietara berdina	Gehienak erdaraz	Batere ez / Erantzunik ez
Bikoteko hizkuntza	Euskaraz gehiago	73,3	12,4	8,1	6,2
	Bietara berdina	8,9	11,1	43,4	36,7
	Erdaraz gehiago	5,4	7,8	57	29,7

*Iturria: Siadeco.*

Hedabideen kontsumoarekin lotuta, zehazki jakin nahi izan da Tolosako guraso euskaldunek ezagutzen ote dituzten eskualdeko hedabideak —*Tolosaldeko Ataria* proiektu multimedia eta 28 Kanala telebista—. Ondorioa da baietz, ia denek ezagutzen dituztela (%96), eta kontsumoan dagoela erronka.

**37. Grafikoa**

Eskualdeko hedabideen ezagutza eta kontsumoa (%)



*Iturria: Siadeco.*

Eskualdeko komunikabideak kontsumitzeari dagokionez, alde adierazgarria dago bikoteko hizkuntzaren arabera, baita irakurtzeko erraztasunaren arabera ere. Oso adierazgarria da erraztasunarekin lotutako faktorea. Argia da joera: zenbat eta erraztasun handiagoa euskaraz irakurtzeko, kontsumo handiagoa. Planteamendu lineala egin da hor, alegia, euskaraz irakurtzeko erraztasunarekin alderatu kontsumoa, baina, hipotesi gisa, mahai gainean jar daiteke aurkako norabidea ere: euskaraz kontsumitzearen ondorio ote den erraztasuna.

**15. taula.** Eskualdeko hedabideen ezagutza eta kontsumoa, bikoteko hizkuntzaren eta irakurtzeko erraztasunaren arabera.

		Ezagutu eta asko kontsumitu	Ezagutu baina gutxi kontsumitu	Ezagutu baina ez kontsumitu	Ez ezagutu, ez kontsumitu/ Erantzunik ez
Bikoteko hizkuntza	Euskaraz gehiago	47,6	39,1	11,1	2,3
	Bietara berdin	27,8	46,7	23,3	2,2
	Erdaraz gehiago	19,5	49,2	26,6	4,7
Irakurtzeko erraztasuna	Euskaraz gehiago	60,0	30,7	6,7	2,6
	Bietara berdin	40,1	42,6	13,5	3,9
	Erdaraz gehiago	20,7	47,6	27,6	4,1

*Iturria: Siadeco.*

Gurasoekin egindako talde dinamiketan bi motibo nagusi eman dituzte papereko hedabideen kontsumoari dagokionez: ohitura eta erraztasuna. Kasu askotan, lotuta daude biak.

*«Ohituta nago Diario Vasco irakurtzera, eta zailago egiten zait Berria irakurtzea, nahiz eta ikastolan ikasia izan eta ama hizkuntza euskara izan. Zailtasunak dauzkat»*

*«Ohituta bazaude hizkuntza batean irakurtzera, errazago irakurtzen duzu hizkuntza horretan. Niri alderantziz gertatzen zait: ohituago nago euskaraz irakurtzen, eta errazago irakurtzen ditut Berria eta Argia»*

*«Ohiturak landu egin behar dira, eta, ez baduzu esfortzu bat egiten, jai daukazu. Duela urte batzuk nik ere ez nuen ohiturarik, baina gaur badut»*

*«Ez daukat ohiturarik euskaraz irakurtzeko: txikitatik erdaraz. Ataria irakurtzen dut orain batzuetan. Ohitura kontua da, nahiz eta euskaraz egin nituen ikasketak. Behin irakurtzen jarrita, ez dut nabaritzen gehiago kostatzen zaidanik, baina jarri egin behar»*


*«Nire inguruan euskarazko prentsa ez da kontsumitzen. Nik kontsumitzen dut, baina askotan jabetzen naiz nire inguruan ez dituztela ezertarako erabiltzen, ezta hemengoak ere [Ataria]»*

Guraso batzuek ohartarazi dute, gainera, etxeko prentsa kontsumoa eredu dela seme-alabentzat.

*«Prentsa giltzarria da: nahi baldin badugu seme-alabek euskaraz irakurtzea, etxean daukagun prentsak euskalduna izan behar du. Prentsa oso ona daukagu. Hor asko daukagu egiteko irakurle potentzialak irakurle izateko. Eta ez da kalitateagatik eta diruagatik»*

### 3.3. Argudioak

Gurasoekin egindako talde dinamiketan bakarrik ez, inkestan ere galdetu da hedabideak gehiago ez kontsumitzeko motiboei buruz. Erantzun irekiak utzi dira, eta talde dinamiketan agertu ez diren argudio batzuk nabari dira. Hedabideekin eurekin lotutako argudioak eman dituzte inkestatuen ia erdiek: erakargarritasun eta kalitate txikia dutela (%46). Aldiz, bostetik bik norbere egoerari begiratu diote: denbora edo ohitura gutxi dutela euskarazko hedabideetara jotzeko (%39). Lau motibo horren ondoren ageri da euskara (%10): batzuek hedabideen gain jartzen dute ardurua —ulertzeko zaila den hizkuntza darabiltela—, eta besteek beren gaitasunari begiratzen diote. Askoz atzerago ageri dira hedabideen ildo editorialarekin edo prezioarekin lotutako motiboak.



*Iturria: Siadeco.*

Erakargarritasunarekin eta kalitatearekin lotuta, nabarmena da ETBren programazioarekiko kritika. Besteak beste, edukietan aniztasun handiagoa eskatzen dute.

*«ETBren kasuan, nabarmena da euskaldunak bigarren mailako herritar moduan tratatzeari utzi beharko liokeela; adibidez, gaueko informatiboetan ordutegi kaskarra Gaur Egun-ek du, eta iraupena, Teleberri-ren erdia edo gutxiago»*

*«EITBk euskara balioestea eta eskaintza nabarmen hobea egitea»*

*«Kalitatea handitzea, batez ere telebistan»*

*«Telebistaren kasuan, eduki landuagoak»*

*«Programazioaren ikuspegi irekiago bat»*

Erakargarritasunarekin lotuta, bada guraso multzo bat zera dioena: edukiari erreparatzen diola, eta ez hizkuntzari.

*«Ez zait iruditzen irizpide denik euskaraz ala erdaraz den telebistan ikusitakoa, baizik eta gustukoa ote den zuk ikusi nahi duzun programa»*

*«Edukiari ematen diot garrantzia, ez hizkuntzari»*

Denboraren eta ohitura faltaren argudioa gehiago ageri da papereko komunikabideekin lotuta, irakurtzearekin, beraz.

*«Ataria-ko harpidedunak gara eta gustura izango ginateke Berria-koak, baina ez daukagu egunero lasai-lasai irakurtzeko astirik»*


*«Denbora falta daukat irakurketari eskaintzeko»*

*«Ohitura arazoa da. Irratia euskaraz entzuten dut, baina egunkariak normalean erdaraz irakurri ohi ditut. Horretaz jabetu, eta aldatzeko borondatea behar da»*

*«Ohitura kontua da. Igandeetan bakarrik erosten dut egunkaria, eta betidanik Diario Vasco da»*

### 3.4. Internet

Sareko hedabideei buruz zehazki ez, Interneteko kontsumoari buruz modu orokorrean galdetu da: sarean zer hizkuntzatako webguneetara jotzen duten. Hedabideena baino kontsumo erdaldunagoa ageri da sarean: gehienbat euskarazko webguneetara jotzen duten gurasoak %8 dira, eta erdarazkoak eta euskarazkoak paretsu kontsumitzen dituztenak, %17. Hiru gurasotik bik baino gehiagok (%69) gehienbat gaztelaniazko atarrietara jo ohi dute.



Iturria: Siadeco.

Gurasoek argudio bat eman dute batez ere: erdarazko eskaintza izugarri handia dela, eta euskarazkoa, txikia. Diote horregatik jotzen dutela erdarazko webguneetara.

*«Googlen euskaraz jarrita, badakizu ez zaizkizula emaitza asko aterako»*

*«Informazio doblea dago erdaraz»*

*«Zerbait bilatzeko, euskaraz jartzen dut, baina ikusten dudanean motz xamar, erdarara pasatu behar»*

*«Erdara erabiltzeko ohitura daukat. Hasi izan naizenean euskaraz bilatzen gai jakin bati buruz, ez dut nahi dudana lortu. Erdaraz askoz aukera handiagoa dago. Ohitura kontua ere bada»*



*«Wikipedian askoz gehiago dago erdaraz. Azkenean, herriak sortzen du Wikipedia, eta gu askoz gutxiago gara. Euskaraz asko dago; garen herrirako, asko»*

*«Euskarak daukan hizkuntza minorizatuaren muga hor dago. Euskaraz zerbait bilatu eta ez badago, beste hizkuntza batera jo behar duzu»*


Webgune batzuk bi hizkuntzetan erabiltzeko konfiguratuta daude —erakunde publikoenak, esate baterako—, baina euskaldun askok erdaraz kontsultatzen dituzte horiek ere, sartzen direnean erdarazko bertsioa atera zaielako.

*«Askotan lehenengo orria erdaraz ateratzen da, eta hor jarraitzen dut, azkar egin behar dudalako»*

*«Ez dago ohiturarik sistema eragileak euskaraz jartzeko ere. Oso jende gutxi dauka euskaraz. Utzikeria dago»*

### 3.5. Liburuak

Liburuen kontsumoari dagokionez, inkestatutako guraso euskaldun gehienek esan dute liburuak irakurtzen dituztela (%87). Erdarazko kontsumoa da nagusi: gehienbat erdaraz irakurri ohi dute hiru gurasotik bik (%62). Batik bat euskaraz irakurtzen dutenen portzentajea, berriz, hamar aldiz txikiagoa da: %6.



*Iturria: Siadeco.*

Liburuen kontsumoa eta papereko hedabideena alderatuta, nabari da korrelazioa: liburuak euskaraz irakurtzeko ohitura dutenek jotzen dute papereko euskarazko hedabideetara ere. Hara: liburuak gehienbat euskaraz irakurtzen dituzten artean bostetik lauk baino gehiagok irakurri ohi dituzte euskarazko papereko hedabideak; liburuetan erdarara jotzen dutenetan, berriz, bostetik batek ere ez.

Kontsumo datuak erraztasunarekin alderatzean, nabari da joera bat: euskaraz errazago irakurtzen dutenek ere kontsumitzen dituzte erdarazkoak.

**16. taula.** Liburuak irakurtzea, irakurtzeko erraztasunaren arabera.

	Euskaraz gehiago	Bietara berdin	Erdaraz gehiago	Libururik ez
Euskaraz errazago	24,0	29,3	32,0	14,7
Bietara berdin	4,2	23,7	59,9	12,2
Erdaraz errazago	0,0	2,8	83,5	13,8

*Iturria: Siadeco.*

Papereko hedabideen argudio berberak ageri dira gurasoen artean: ohitura txikia dutela euskarazko liburuak irakurtzeko, eta erraztasunik ez dutela. Areago, aisiarekin edo plazerarekin lotua dagoenez irakurketa, guraso batzuek adierazi dute euskara ez dela sartzeko kontzeptu horien barruan:


*«Askoz gehiago kostatzen zait euskaraz irakurtzea: erosoagoa eta erlaxatuagoa da niretzat gaztelaniazko liburu bat. Noizbehinka neure buruari esaten diot: 'Hau euskaraz'. Baina erdi behartuta»*

*«Txikitatik hitz egiten dut euskaraz, baina euskararekin lotura oso tekniko izan dut beti, akademizista. Askotan laneko kontuak irakurtzen ditugu euskaraz, eta buletinean flipatu egiten duzu: gaztekeraz idatzita dago, eta itzulpenak ezin dira ulertu»*

*«Irakurketaren trataera ez da oso egokia. Euskaraz ez dugu plazeragatik irakurri: euskara beti lotu dugu helburu akademikoekin, derrigorrezko izatearekin. Horrek ez du laguntzen»*

### 3.6. Musika eta ikus-entzunezkoak

Euskarazko kontsumoa handiagoa da musikari dagokionez: bostetik batek entzuten du gehienbat euskaraz. Beste horrenbestekoa da musika batez ere erdaraz entzuten dutenen portzentajea. Zabaldua dago euskaraz bezala erdaraz musika entzuteko joera: ia erdiek azaldu dute hori (%49).




*Iturria: Siadeco.*

Ikus-entzunezkoetan, berriz, nabarmena da erdararen indarra. Oso apala da batez ere euskarazko ikus-entzunezkoak kontsumitzen dituztenen portzentajea (%2), eta gehien-gehienek erdarazkoak kontsumitzen dituzte batez ere (%82). Kontsumoari buruzko datuak dira horiek, baina nabarmena da eskaintzak ere eragin handia daukala kontsumoan.

**42. Grafikoa**

Ikus-entzunezkoen kontsumoa (%)




*Iturria: Siadeco.*

### 3.7. Arrazoiak

Euskarazko kultur produktuetara zergatik ez duten gehiago jotzen, galdera hori egin zaie parte hartzaileei. Kasu honetan, erantzun itxiak proposatu zaizkie. Ia erdiek azaldu dute ohitura kontua dela, ez dutela euskarazko kultur edukietara jotzeko ohiturarik (%45). Nabarmen atzerago daude denbora faltaren argudioa (%18) eta eskaintza ez ezagutzearena (%14). Gainerako arrazoibideak oso bazterrekoak dira.

### 43. Grafikoa

Euskarazko edukiak gehiago ez kontsumitzeko arrazoiak (%)



Iturria: Siadeco.

Argudioak sakondu dituzte. Kontsumo txikiaren oinarrian aukera falta dagoela dio guraso multzo batek: erdarazko eskaintzaren aldean txikia dela euskarazkoa, eta erdarara jotzen dutela horregatik.

*«Beste hizkuntzetan aurki ditzaket aukera ugari»*

*«Gaztelaniazko eta ingelesezko aukera askoz zabalagoa da»*

*«Interesatzen zaizkidan gaiak normalean ez dira euskaraz aurkitzen»*

Horren ondoren, interesaren argudioa eman dute: euskarazko kultur eskaintzan ez dutela aurkitzen beren intereseko edukirik.

*«Erdarazko eskaintza interesgarriagoa da»*

*«Ez dut topatzen interesgarri zaidan eskaintzarik»*

*«Niretzat interesgarria dena kontsumitzen dut, hizkuntza kontuan izan gabe»*

Atzerago ageri dira beste bi argudio, pisu txikiagoarekin: kultur produktuen kalitatea eta gurasoek eurek euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunak.

Informazio bilketaren azken atalean, pertzepzioa eta iritzia hartu dira aztergai: euskarari eta haren erabilerari buruz nolako iritzia duten Tolosako guraso euskaldunek.

#### 4.1. Euskaldun pertzepzioa


Batetik, euskaldunen portzentajeaz galdetu da: Tolosan zenbat euskaldun daudela uste duten. Euskaldunen portzentajeari buruzko irudia giltzarria da hizkuntza ohiturei dagokienez, erabiltzeko aukerari buruzko pertzepzioa garrantzitsua baita euskaraz egiteko.

Datu ofizialen arabera, 2 urtetik gorako tolosarren %71 dira euskaldunak —hori dio biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren estatistikak—. Alegia, Euskal Herriko herri gehienetan baino aukera handiagoa dago alde horretatik Tolosan. «Lehen hitza euskaraz egiteko aukera handia dago. Batetik, probabilitate oso handia dagoelako besteak ulertuko dizula. Bestetik, lehen hitza euskaraz egitea, gerora aldatzera behartuta egon arren, mezua bidaltzeko modu bat da: euskarari ikusgarritasuna eman, eta gure desioa adieraztea». Lehen hitza euskaraz egitearen garrantziaz ari da Bengoetxea. «Zenbat eta gehiago izan lehen hitza euskaraz egiten dutenak, orduan eta ikusgarritasun handiagoa emango genioke euskarari eta jende horren guztiaren desioari. Nolabaiteko *presio soziala* sustatuko genuke *beharra* ikusaraziz». Antxustegietxartek ere ohartarazi du lehen hitzaren garrantziaz: «Lehenengo hitza euskaraz egitea edo elkarrizketa aurrera doala esaldiren bat euskaraz sartzea giltzarria da aurrekoa euskalduntzat identifikatzeko eta euskaraz aritzeko».

Alde horretatik, nabari da ikusezintasun arazo bat. Tolosan bi hutsune sumatzen ditu Amonarrizek. Batetik, gazteen pertzepzioa. Nerabeekin egindako mahai inguru bat gogoratu du. «Harrituta geratu nintzen, beren pertzepzioa zelako helduen artean —batez ere merkatarien artean— zeudenak baino askoz euskaldun gutxiago zeudela». Bestetik, migratzaileei buruzko iritzia: «Etorkinekiko harremanetan gehiago landu beharko genuke euskaldunak ere badauden ideia». Galtzaundiko teknikariak ere sumatu du horrelako joera, pertzepzioarekin lotuta: «Euskaraldiko formazio saioak eman ditugunean eta herritarrei galdetu diegunean zenbat tolosarrek ulertzen

duten euskara, gehiengo oso handiak esaten du %80tik behera, eta %70etik behera ere bai batzuek». Euskaraz ulertzen dutenak —euskaldunak eta ia euskalduna batuta— %82 dira Tolosan.

Inkestatutako gurasoei egin zaie euskaldunei buruzko galdera: zenbat euskaldun dauden Tolosan. Gehienek, hamarretik zazpik, zuzen erantzun dute. Euskaldun gehiago daudela uste dutenak oso gutxi dira (%4), baina kontuan hartzekoa da ia bostetik batek (%18) uste duela Tolosan euskaldun gutxiago dagoela.




*Iturria: Siadeco.*

Erabilerari buruz ere egin da pertzepzioaren inguruko galdera: zein adin taldetan erabiltzen ote den euskara gehien. Kaleko erabileraren datuek urtez urte erakusten dute —bai Tolosakoek, bai Euskal Herrikoek— umeena dela erabilerarik handiena. Hala erantzun dute inkestatu gehienek ere, hirutik bik. Adierazgarria da, hala ere, lautik batek esan duela zaharragoek erabiltzen dutela euskara gehiago: helduek (%17) eta adinekoek (%10).

**45. Grafikoa**

Tolosako euskararen erabilerari buruzko pertzepzioa (%)




Iturria: Siadeco.

**4.2. Euskaraz bizitzea**

Guraso euskaldunei euren ere galdetu zaie beren jokabidearen pertzepzioaz, galdera honen bidez: *Zer neurritan bizi zara euskaraz?*. 0-10 eskalan, batez beste 7,8 puntuko balorazioa egin dute inkestan. Ia hamar guraso euskaldunetik bederatzik eman dituzte 5 puntu baino gehiago (%89), eta areago, erdiek baino gehiagok 8 puntu baino gehiago (%57).

**46. Grafikoa**

Euskaraz bizitzeari buruzko pertzepzioa (%)




Iturria: Siadeco.



Euskaraz bizitzearen pertzepzio hori sakonago aztertzeko, erabilera aitortuarekin alderatu da; hau da, euskaraz bizi direla dioten guraso euskaldunek nolako erabilera eman duten aztertutako arloetan. Horretarako, bi multzo hartuko dira oinarri: batetik, euskaraz bizitzeko eskalan 9-10 puntu eman dituztenak; bestetik, 6-7-8 puntu jarri dituztenak. Horien erabilera trinkoa hartuko da aintzat, ohiko formula baliatuz: erabat euskaraz egiten dutenak eta bi hizkuntzetan egiten dutenen erdiak.


Alde nabarmenak ageri dira eremuaren arabera. Egunkarien eta telebistaren kontsumoan, adibidez, hutsune handia nabari da, baita liburuetan ere: euskararen erabilera oso bazterrekoa da.



*Iturria: Siadeco.*

### 4.3. Arrazoiak

Erabilerari buruzko pertzepzioa aztertuta, horren arrazoietan sakondu nahi izan da. Zehazki, guraso euskaldunei galdetu zaie zergatik ez duten euskara gehiago erabiltzen. Inkestan, erantzun itxiak proposatu zaizkie motibo gisa. Aldearekin, bat da nagusi: besteek erdaraz egiten dietela. Lau guraso euskaldunetik batek hautatu du. Askoz atzerago daude gainerako motiboak, eta hiru nabarmendu dira: erosotasuna, euskaraz natural ez egitea, eta inguru erdalduna izatea. Motibo horiek guztiak bi multzotan bana daitezke. Batetik, norberarekin lotuak: erosoago egitea erdaraz, erdara ateratzea, ohitura falta, borondate falta... Hiru gurasotik batek aipatu dituzte motibo horiek. Bestetik, inguruarekin lotuak: besteek erdaraz egitea, inguru euskalduna ez izatea, gehienek erdaraz egitea... Bost gurasotik bik baino gehiagok eman dituzte horrelako arrazoibideak.



Motibo horiek mahai gainean jarri dituzte gurasoek talde dinamiketan ere. Ohiturari dagokionez, adibidez, gurasoek ohartarazi dute aita-ama euskaldun askok oso errotua dute erdaraz aritzeko joera, eta, areago, Tolosan bertan badirela eremu batzuk (guraso taldeak, kuadrillak, portaleko bilerak...) non erdararen erabilera *de facto* ezarria dagoen.

*«Badaude gune batzuk inertziaz edo ohituraz gaztelaniaz egiten dutenak, nahiz eta euskaraz jakin. Inguru horietan egoera hau gertatzen zait: euskaraz egiten dut, euskaraz erantzuten didate, baina beren artean erdaraz egiten dute»*

*«Euskaraz ondo dakien jendeak erdaraz egiten du oraindik. Nik neuk ere bai askotan. Ohitura kontua da, txipa aldatzea. Baina ez dugu aldatzen»*

*«Nire inguruko guraso gehienak euskaldunak dira, baina erabilera ez da osoa. Ez dut esango orokorra denik erdaraz egitea, baina ohitura handia dago»*

Erdarara jotzeko joera horren oinarrian zer dagoen, alde psikologikoa aipatu dute guraso ugari: eremu batzuetan euskaraz egitea edukazio txarrekoatza jo izan dela. Gai hori aztertu da azken urteetan hainbat ikerketatan (Suay eta Sangines, 2010): «Katalan hiztun batek etengabe dudak jar ditzake bere eguneroko hainbat alderdi: nola hasi elkarrizketa bat, hizkuntza hori hitz egiten ez dutenei nola erantzun, hizkuntza aldatzeko eskatzean nola erreagionatu, non jarri marra gorria begirunerik ezaren edo edukaziorik ezaren aurrean... Aldiz, frantsesez edo gaztelaniaz hitz egiten dutenek ez dute inoiz auzitan jartzen horiek (ez dute auzitan jartzeko egoerarik bizi izaten)».

*«Badaezpada erdaraz egiten dugu askotan. Euskaraz gehiago egin liteke, baina egia da euskaldunok hezi gaituztela besteekin ondo geratzeko. Erdararako joera daukanari erdaraz egiten diot. Gero damutu egiten naiz. Berandu»*

*«Oso barneratuta izan dugu norbait euskalduna ez bada errespetu falta dela euskaraz egitea, nahiz eta ulertu»*

*«Erdaraz erantzuten didatenean erdara salto egiten dut. Ezin dut euskaraz jarraitu»*

*«Telefonoz errazago eusten diot euskarari, besteak esan arte ezin duela. Aurrez aurre zailagoa da»*

*«Konplexu asko dauzkagu. Errespetuaren kontu horregatik erdarara jotzen dugu askok»*

Guraso batzuek azaldu dute hori pixkanaka aldatzen ari dela, belaunaldi aldaketarekin batera. Hala ere, bada Tolosan bertan esperientzia txarrak izan dituen gurasorik.

*«Estres linguistiko handiagoa izaten nuen lehen, erreparo handiagoa ematen zidan. Baina hemen bizita, eskubidea baino gehiago, betebeharra da lehen hitza euskaraz egitea. Gero esango dizu ez badu ulertzen»*

*«Lehen hitza nahiko barneratuta daukagu: 'Kaixo, egun on'. Lehen hitza baino gehiago, lehen esaldia bermatu behar da»*

*«Aldatzen ari da joera: euskaraz egitea, lehen hitza euskaraz egitea ondo ikusia dago»*

*«Lehen hitza erdaraz egitea helduen kontua da gehiago. Nire amarengan ikusten dut: denda batera sartu, hango langilea euskalduna, eta amak: 'Hola, buenas tardes'. Oso barneratua daukate, eta zaila zaie aldatzea»*

*«Sozialki nire inguruan ez dago ondo ikusia pertsona batek gaztelaniaz egin eta besteak euskaraz erantzutea. Ez naiz eroso sentitzen, nahiz eta jakin ulertuko nautela. Komentario txarrak ere entzun izan ditut, eta ez da eroso»*

Erdarara jotzea ez da gertatzen euskaraz egiten ez dutenekin bakarrik: ikustean solaskideak euskaraz egiteko zailtasunak dituela edo ikasten ari dela, guraso askok jotzen dute erdarara.

*«Semearen gelako baten ama euskaltegian dago. Ez da ausartzen hitz egitera, baina behin esan nion euskaraz egingo niola, ikasten laguntzeko. Biok adostu genuen. Baina taldean gaudenean eta nik euskaraz egiten diodanean, beste gurasoak estu-estu egoten dira. Aurpegian nabaritzen zaie apurua: 'Zertan ari da erradikal hau?'. Segituan sartzen dira elkarrizketan gaztelaniaz, nirea mugatu nahian»*

*«Asko ezagutzen ditut ez dutenak euskara guztiz kontrolatzen, ez direnak ausartzen. Haiei kosta egiten zaenez euskaraz egitea eta guri ez zaigunez batere kostatzen aurkakoa, erdarara jotzen dugu».*

*«Kalean, nahiz eta zuk esfortzua egin euskaraz jarraitzeko, jendeak gaztelaniara jotzen du. Ni hasten naizenean hitz egiten eta konturatzen direnean ez naizela euskaldun zaharra, aldatu egiten dute. Ni beti saiatu naiz euskaraz egiten, nahiz eta gaizki egin, eta denek aldatu egiten dute hizkuntza. Edukazio kontua izango da, baina nik horrela ez dut inoiz ikasiko, ez daukadalako praktikatzeko aukerarik»*

Euskaldunen ikusezintasunaren gaia ere atera dute gurasoek: askotan ez dutela jakiten nor den euskalduna eta nor ez, nahiz eta uste baino euskaldun gehiago egon Tolosan.

*«Euskaraz bizitzeko aukera badago Tolosan, baina ez gara kontziente. Jende askok ulertzen du»*

*«Tolosan oso arraroa da lehen hitza euskaraz egin eta ez ulertzea»*

Azken motibo bat ere nabarmendu dute: hautua, kontzientzia. Aita-ama asko ez dituzte kezkatuta ikusten euskararen aldeko hautua egitearekin. Batzuek erakundeetan ere ikusten dute ekimen falta.

*«Nahi dute beren umeek euskaraz jakitea, lanerako eta. Baina guraso batzuek ez diote garrantzirik ematen beren artean euskarazko harremana izateari»*

*«Kontzientziazioa behera doa. Iruditzen zaigu egina dagoela, herri euskaldun batean bizi dela, herria euskaldundu dela, euskaraz hitz egiten dugula kalean»*

*«Tolosan dagoen sentsazioa da euskaraz bizi garela. Badago jende bat pentsatzen duena euskaraz bizi dela, baina benetan ez dena hala bizi. Militantziak nabarmen egin du behera»*

*«Euskaraz bizi nahi duenak beste toki batzuetan baino errazago dauka, baina ez dauka dena egina»*


*«Udaletik ere jarrera pasiboa nabari dut euskararekin. Ez dut jarrera proaktiboa ikusten. Tolosa bada herri bat non gauza gehiago egin daitezkeen, pauso ausartak eman daitezkeen»*

#### 4.4. Hizkuntza ohiturak aldatzea

2018ko udazkenean egin da inkesta Tolosako guraso euskaldunen artean, lehenbiziko Euskaraldia hastear zegoela. Hizkuntza ohiturak aldatzea da egitasmo horren helburua, eta aurretik hainbat herritan egin dituzte gisa horretako proiektuak; Tolosan bertan ere bai, ikastetxeetako gurasoekin. Hain justu, guraso euskaldunei galdetu zaie izan ote duten hizkuntza ohiturak aldatzeko ohituren berri, eta bostetik hiruk erantzun dute baietz. Irismen arazo bat erakutsi du datu horrek, kontuan izanda Euskaraldiaren komunikazio kanpaina bete-betean egin dela inkesta, eta aurretik Tolosako ikastetxeetako gurasoekin gisa bereko egitasmo bat egin zela.

**49. Grafikoa**

Hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoen berri izan ote duten (%)



Iturria: Siadeco.

Euskaraldiko partaide izan dira gurasoen dinamiketan parte hartu duten gehienak —Euskaraldia amaitu ondoren egin dira talde dinamikak—. Oro har, ona izan da esperientzia. Parte hartzaileei balio izan die ohartzeko bazutela joera eremu batzuetan erdaraz aritzeko, nahiz eta ez uste izan. Batzuek lortu dute inertzia hori apurtzea. Txapa jantzita eramateak eta beste batzuei ikusteak lasaitasuna eman die parte hartzaile gehienei, eta ahaldundu egin ditu.

*«Iruditzen zitzaidan ez nuela ezer aldatuko, lehen ere egiten nuela, eta balio izan dit konturatzeko momentu batzuetan gehiago egin dezakedala. Lagundu dit zenbait jenderekin errazago egiteko; adibidez, belarriprest txapa dutenekin»*

*«Uste nuen ez nuela ezer aldatuko, baina, bai, aldatu dut. Ezezagunekin, adibidez. Dirua ateratzera joan, eta emakume batek esan zidan: 'Está averiado'. Euskaraz erantzun nion, eta hortik aurrera euskaraz jarraitu genuen. Euskaraldia ez balitz, erdaraz erantzungo nion, eta horrela segituko genuen»*

*«Kuadrillan ohitura genuen edozein momentutan erdaraz aritzeko, konturatu gabe, nahiz eta denak euskaldunak izan. Konturatzen lagundu digu»*

*«Ohiturak ezin dira 11 egunean aldatu, baina pertsona jakin batzuekin nabaritu dut aldaketa. Balio izan du konturatzeko uste baino jende gehiago dagoela uste baino gehiago ulertzen duena»*

*«Hiru bat lagunek belarriprest txapa jantzi zuten. Ez nuen espero, eta orain euskaraz egiten dut. Ez dira oso elkarrizketa luzeak. Desberdina litzateke elkarrizketa luzeagoak balira»*

*«Txapa ikustea sekulako lasaitasuna izan da. Eta zuk txapa izatea ere bai, euskaraz lasai egiteko»*

*«Elkarrizketa elebidunetan gaizki sentitzen gara beti, eta horretarako lasaitasuna eman dit»*

Guraso guztiek ez dute hain balorazio ona egin, hala ere. Batzuek, ez dutelako erronka betetzea lortu: ez dute hartutako konpromisoa bete. Beste batzuek, ez dutelako aldaketarik nabaritu, edo behin Euskaraldia amaitu orduko lehengo joerara bueltatu direlako.

*«Ez dut bete Euskaraldian nuen asmoa. Erori egin naiz. Dendetan-eta euskaraz hitz egiten dut, baina bizilagun bati esan nion nik euskaraz egingo niola, eta berak erdaraz. Egun batean bakarrik egin nuen»*

*«Ez dut nabaritu. Ahobizi izan naiz egunero, txaparekin edo gabe, eta txaparekin joan naizenean ez dut ezer desberdina nabaritu, eta ondorengo egunetan ere ez. Nire inguruan gaztelaniarako joera dutenek berdin jarraitu dute»*

*«Uste baino jende gehiago ikusi dut txaparekin, eta uste ez nuen jendea. Baina nire inguruan ez dut erabilera handiagoa nabaritu: euskaraz egiten dutenek euskaraz jarraitu dute, eta erdaraz egiten dutenek, erdaraz»*

*«Pasatu ziren egun haiek, eta ez dut ikusi aldaketarik. Berriro bueltatu naiz lehengo egoerara»*


*«Euskaraldiko egunetan saiatu ginen inguruan, baina gero berdinerantz itzuli gara»*

*«Deseroso sentitu naiz. Egunerokoan daukat ahobizi jarrera, eta txapa eramatea izan zen nolabait behartuta nengoela adieraztea. Txaparik gabe errazago betetzen dut rol hori»*

#### 4.5. Nondik jo

Euskararen erabilera areagotzeko zer egin behar ote den, iritzia eskatu zaie guraso euskaldunei, galdera ireki gisa planteatuta. Erantzun horiek multzokatu egin dira, eta batik bat ildo bat bultzatu beharra sumatzen dute gurasoek: kontzientziazioa areagotu beharra, norberak ahalegina egin beharra. Plano pertsonalarekin lotutako beste arrazoibide batzuk ere eman dituzte: euskaraz badakitenek egitea, ohiturak aldatzea lehen hitza euskaraz egitea... Gisa horretako argudioak eman dituzte hirutik bik baino gehiagok.

Euskaldunen esparru pertsonaletik aterata, bi arrazoibide ageri dira nagusiki, nabarmen pisu txikiagoarekin. Batetik, erakundeak: neurri irmoagoak hartzea euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskara sustatzeko. Bestetik, erdaldunak: euskarara gerturatzeko urrats handiagoak egitea. Horrekin lotuta, guraso batzuek «beharra sortzea» jo dute giltzarri, baina beste multzo txikiago batek uste du «ez derrigortzea» garrantzitsua dela.



Iturria: Siadeco.



Erabileran pauso handiagoak emateko modua ikusten dute adituek. «Urratsak egiten ari dira, baina urrun dago oraindik sabaia», nabarmendu du Artolak. Bengoetxea ere bat dator, eta gogorarazi du Txillardegiren eredu matematikoa kontuan hartuta esperotako erabilera baikorrena oraindik ez dela lortu Tolosan: %48,2ko erabilera litzateke, eta azken neurketan %45ekoa izan da. «Hori horrela, Tolosan tartea badago erabileran egora egiteko: behatutako erabilera eta espero zitekeena ez datoz bat». Bi hipotesi planteatu ditu: «Batetik, euskaldunen arteko harreman sareen trinkotze maila: euskaldunak erdaldunekin harreman asko izatera behartuta ote dauden. Bestetik, euskara erabiltzeko leialtasuna: euskaldunen arteko elkarrizketak gaztelaniaz izatea sarri». Egindako azterketaren arabera, bi hipotesiak dira errealitate. Amonarriz ere bat dator hobetzeko aukera badagoela: «Kontuan izanik haur eta gazte guztiek dakitela eta helduen artean ere ezagutza zabala dela, erabilera indizeak hobetzeko tartea badago». Beste ohar bat ere egin du: «Lanean jarraitu beharko dugu urte hauetan irabazitakoa ez galtzeko ere».

Hamarkada gutxian euskararen egoera aldatu da Tolosan. Euskaldunen portzentajea igo egin da, eta kaleko erabilera ere bai. Hala ere, aditu batzuek sumatzen dute aurreko hamarkaden eragina gaur egungo erabileran. «40 urtetik gorakoetan nabarmen, eta 60tik gorakoetan nabarmenago. Askok dira guraso bat edo biak euskaldunak izan arren beren burua berreuskaldundu behar izan dutenak. Eta, kaleko erabilerari dagokionez, askok dira oraindik erdararako joera eta inertzia dutenak», azaldu du Amonarrizek. Adin talde gazteen datuek erakusten dute hobekien nola aldatu den euskararen egoera: 1985eko neurketan gazteek egiten zuten euskara gutxien, eta orain haurrek adina egiten dute ia.

Aurrerapen horren eskutik euskararekiko arduraren gaitzen ari ote den, badute horren kezka adituek. «Egia da gaur egun, zorionez, beste egoera batean gaudela, eta —zenbaitetan— horrek erlaxazio puntu bat ematen duela. Kontzientziazioaren aldetik ahultze bat? Izan daiteke», dio Samaniego ikastetxeko hizkuntza arduradunak. Euskararen egoera hobetu izanak ekarri du erlaxazio moduko bat, Bengoetxearen ustez. «Hilzorian dagoena suspertzen ikusten bada, nahiz eta gaixo jarraitu, erlaxatu eta zainketak gutxitzen zaizkio». Hori ikusten du euskararekin ere: «Ez gara ohartzen hor dirauela gaixotasunak, ahuldadeak, eta osasunak okerrera egin dezakeela. Zer bait dinamikoa dela: irabazten ez dena galdu egiten dela». Uste du diagnostiko orokorretatik harago jo behar dela, eta atalez ataleko gogoetak egin behar direla, benetako egoera agerian jartzeko.

Laskorain ikastolako ordezkariak uste du euskararen egoera gizarteratu egin behar dela: «Euskararen egoera eta bilakaera soziolinguistikoari buruz pedagogia oso gutxi egin da eskolan eta eskolatik kanpo». Gazteen adibidea jarri du: «Ez dute ikusten euskara arriskuan dagoenik, harritu egiten dira datu soziolinguistikoak eskura jarrita». Herrikide ikastetxeko arduraduna ere bide beretik mintzo da: «Gure hizkuntzaren egoera soziolinguistikoak eta abarren oinarriak gizarteratu gabe, ezin da kontzientziaziorik eskatu». Tolosako nerabe batzuekin egindako mahai inguru bat gogoratu du Amonarrizek: «Garbi adierazi zuten ulertzen dutela gure belaunaldia *pelma* izatea euskararekin, desagertzeko arriskuan ikusi genuelako, baina gaur egun arrisku hori gaindituzat ematen dute». Ez du uste kontzientzia falta denik: «Testuingurua aldatu egin da, eta kontzientziazio hori ere egoera berrira egokitu beharra dago».

Egoera horretan, nolako mezuak zabaldu? Euskaraz egiteko aukera nabarmendu behar da, Artolaren ustez: «Euskararen ulermen maila altuan jarriko nuke fokua: *Egin zenezake!* mezuan». Horretarako, ordea, ez du uste herritarren bizkar utzi behar denik dena: «Instituzioek eta legeek aurretik joan beharko lukete». Horrekin lotuta, Baraibarrek dio bi oinarri uztartu behar direla. Batetik, hizkuntza eskubideak bermatzea: «Nik zuk adina eskubide dut nahi dudana hizkuntzan bizitzeko». Bestetik, hitzunen garrantzia: «Hitzunen baitan bizi dira hizkuntzak: galdu eta biziberritu daitezke. Gai hori gizarteratu egin beharko litzateke».

Diskurtso errealista erabili behar dela ohartarazi du Bengoetxeak: «Irabaziak eta galerak modu kritikoan eta errealean aztertzea». Informazioa lantzea eta gizarteratzea behar da, haren ustez. «Komeni da gauzak dauden-daudenean agertzea, ebidentzia eta datu zientifikoetan oinarrituta, hil kanpaietatik eta desio edertuetatik urrunduz». Hil kanpairik ez, Amonarrizek dioenez: gaur egungo egoeraren garrantzia nabarmendu behar da —«bidegurutzea»—, eta euskararen tamaina. «Gure arriskua ez da heriotza hurrengo bi belaunaldietan, baizik eta marjinalizazioa, abandonoa eta ghattizazioa».

## 5 Ondorioak eta esku-hartze proposamenak

Tolosako guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak luze-zabal aztertu dira ikerketa honetan, haien iritziak bilduta eta adituen ikuspegiarekin kontrastatuta. Azterketa burutzeko, ikerketaren ondorio nagusiak azalduko dira, eta aurrera egiteko esku hartzeak proposatuko.

### Ezagutza

Hirugarren gune soziolinguistikoan dago Tolosa: %76ko ezagutza indizea du. Bilakaerari dagokionez, bi alde ditu txanponak. Batetik, gero eta euskaldun gehiago dago, eta belaunaldi gazteetan hurbil dago euskararen unibertsalizazioa. Bestetik, ordea, erdaldun elebakarren portzentajea igo egin da azken hamarkadan. Kontuan izatekoa da Tolosako biztanleria hazten ari dela, nahiz eta jaiotza tasa baxua izan. Immigrazioaren eragina nabaria da, hortaz.

- Euskaraz aritzeko aukerak ugaltzeari eta finean euskararen erabilera areagotzeari begira, komeni da erdaldun elebakarren poltsa txikituz joatea —%18 dira—. Helduen esparrua da erdaldunena: Tolosako erdaldunen %33k 65 urte baino gehiago dituzte, eta %37k, 45-65 urte.
- Bada herritar multzo bat euskara ulertu bai baina hitz egiteko gai ez dena: %11. Erdaldunen aldean, gaztexeagoak dira: %42k 45-65 urte daukate, eta %24k, 25-45 urte. Aztertu beharko litzateke horien ezagutza nola baliatu —elkarrizketa elebidunetarako, adibidez—, eta nola bultzatu euskararen ezagutza areagotzera.
- Immigrazioaren eragina nabaria da, eta areago guraso izateko adinean daudenen kasuan. Beharrezkoa da harrera protokoloak izatea, eta horietan hizkuntzaren aldagaia aintzat hartzea. Immigrazioarekin lotuta, gurasoen talde dinamiketan kezka azaldu da eskola segregazioaren gaiarekin —ikastetxe jakin batzuetan ari direla pilotzen jatorri atzerritarreko ikasleak—, eta zehazki, horrek euskararen erabileran izan dezakeen eraginarekin.

### Lehen hizkuntza

Tolosarren ia erdiek euskara dute etxean ikasitako hizkuntza, baina jaisten ari da portzentaje hori aldiz aldi. Etxean erdara jaso dutenen portzentajea, berriz, areagotu egin da. Kontuan izateko aldagaia da lehen hizkuntzarena, euskaraz egiteko erraztasunean eta erabileran nolako eragina daukan ikusita.

- Datuek erakusten dute zabaltzen ari dela etxean euskara eta erdara, biak transmititzea. Hori egiteko arrazoi bat izan daiteke bikote mistoak izatea —guraso bat euskalduna, bestea erdalduna—, baina badira biak euskaldunak izanik ere euskara eta erdara transmititzen dituzten gurasoak; maiz, hori lotuta egoten da gurasoen euren lehen hizkuntzarekin. Erabileran badu eragina: erabat euskara jaso dutenek gehiago egiten dute euskaraz.

### Erabilera

Kaleko erabileraren neurketak geldialdi bat erakutsi du azken urteetan. Etxeko datuei dagokienez —inkesta da—, gorakada ageri da. Euskararen eta gaztelaniaren erabilera paretsu dago.

- Ezagutzatik erabilerara saltoa dago adinaren arabera: adin talde euskaldunenetan dago diferentziarik handiena, umeetan eta gazteetan. Horietako askok etxekide erdaldunak dituzte, eta ezin dute euskaraz egin etxean. Kontuan izatekoa da horrek nolako eragina duen haur eta gazte horientzat, bai erraztasunari begira, bai euskaraz egiteko ohiturari begira.

### Erraztasuna

Euskararen ezagutza ezinbesteko baldintza euskaraz aritzeko, baina ez da nahikoa. Batetik, inguruak eragiten du: euskaldunak badiren edo ez, haiekin aritzeko. Eta, bestetik, erraztasuna da giltzarria, euskaraz hitz egiteko erosotasuna. Guraso euskaldunen bikote harremanetan, adibidez, oso nabarmena da erraztasunaren eragina.

- Kate batean lotutako hiru aldagai dira motibazioa, ezagutza eta erabilera: elkar elikatzen dute hirurek. Euskaraz hitz egiteko erraztasuna areagotzeko, motibazioan eta erabileran eragitea komeni da. Bikote barruko erabilera areagotzea estrategikoa da hurrengo belaunaldiei begira, haien erraztasuna eta hizkuntza ohiturak bideratzeko.
- Erraztasunean isuri bat ageri da hitz egitetik irakurtzera, zuzenean lotua dagoena erabilerarik ezarekin: irakurtzeko erraztasun txikia. Euskarazko bizibiderako oztopoa da hori, mugatu egiten baitu euskarazko hedabideak eta kultura kontsumitzeko egokiera.

### Umeak

Alde handiarekin, gurasoek hurrekin egiten dute euskaraz gehien. Kontua da zer gertatzen den umeak koskortu ahala. Euskararen erabileran galera gertatzen dela diote datuek, eta horren zantzuak azaldu dira inkestan ere: orain guraso direnek umetan baino gutxiago egiten dute euskaraz beren aita-amekin.

- Umetako erabilera gero zergatik jaisten den, faktore bat argia da: gaitasuna. Hurrekiko erlazioetan sinpleagoa da hizkuntza moldea, eta euskaraz erraztasun mugatua dutenek ere badute joera euskaraz aritzeko; umeak haziz joaten diren heinean, ordea, erdara jotzen dute. Erraztasun erlatiboaren eragina ere nabari da, eta bikoteko hizkuntzarena. Umetan bi hizkuntzak erabiltzen zituzten guraso askok eman dute erabat erdaraz aritzeko pausoa.

### Taldea

Kuadrillako eta lantokiko erabileran ere giltzarri da erraztasuna, baina eragina dute euskaldunen dentsitateak eta arau sozialek ere. Nabaria da, adibidez, erdaraz errazago edo bietara berdin egiten dutenen kasuan: kuadrillan eta lantokian gehiago egiten dute euskaraz, gainerako eremuetan baino.

- Inkestako datu gurutzaketek agerian jarri dute esparru batzuetako eta besteetako erabilera lotuta daudela; oro har, etxean euskaraz aritzeko joera dutenek ohitura handiagoa dute hala egiteko kuadrillan eta lantokian ere. Erraztasun mugatuagoa dutenen kasuan, berriz, erabilera txikiagoa da, baina taldeko erabilera handiagoa da gainerako esparruetako baino. Etxean eragiteko —hura baita erabileraren ardatz nagusietako bat, eta transmisioan giltzarria— komeni da taldeko erabileran indar egitea, euskararen aldeko arau sozialak indartuta.

### Generoa

Transmisioan nabari da generoaren eragina: gaur egungo gurasoen erraztasunak korrelazio handiagoa dauka haien amen ezagutzarekin, aitenekin baino. Tolosako kale erabileraren neurketetan ez da sexuaren daturik jasotzen, baina Euskal Herriko datuetan ikusten da koska, emakumeek gehiago egiten dutela.

- Aztertzekoa da euskararen indarberritze prozesua genero ikuspegitik, eta emakumeek egindako ekarpena gogoan hartzea, transmisioaren garrantzia nabarmentzeko eta hizkuntza ohituretan gehiago eragiteko, eta, finean, gizonak ere horretara eramateko.

### Arnasguneak

Tolosako bilakaera soziolinguistikoa ezin da ulertu inguruan dauzkan herriak kontuan hartu gabe. Horietako asko arnasguneak dira, euskara hizkuntza nagusi duten herriak, baina gainbeheran daudenak.

- Udalerriko ikuspegiarekin batera, komeni da eskualdekoa ere aintzat hartzea hizkuntza politikan, ikusita inguruko arnasguneek zer ekarpen egin dioten Tolosari, eta Tolosak berak nolako zentraltasuna daukan eskualdean.

## Hedabideak

Irratia da euskarazko komunikabide kontsumoaren indargune nagusia. Bikoteko hizkuntzaren arabera alde handia dago euskarazko hedabideen kontsumoan, euskarri guztietan. Idatzizko komunikabideen kasuan, aldagai garrantzitsua da irakurtzeko erraztasuna.

- Euskarazko hedabideen kontsumoa tentuz zaindu beharreko aldagaia da, ikusita nolako eragina duten bizibidean. Sozializazio kulturalaren pisua gero eta handiagoa da, gizarte ohituren aldaketaren ondorioz, eta komunikabideen arloa giltzarria da horretan.
- Eskualdeko komunikabideei dagokienez, nabari da guraso euskaldunen artean ia denek dutela haien berri, eta kontsumoan dagoela erronka, hori sustatu behar dela. Datuek erakusten dute, gainera, seme-alaben kontsumoan baduela eragina gurasoenak.
- Komunikabideak ez kontsumitzeari dagokionez, arrazoi pertsonalak ageri dira —ohitura falta, denborarik eza...—, baina kontuan izatekoa da hedabideekin eurekin lotutako motiboak ere eman dituztela guraso askok: kalitatea eta erakargarritasuna aipatu dituzte. Aintzat hartzekoa da hori, areago erdarazko eskaintza etengabe hazten ari den honetan.

## Internet

Sarean erdarazko webguneetan nabigatu ohi dute guraso euskaldunek, oso nabarmen. Eskaintzan dagoen diferentzia da horretarako motibo nagusia —erdarazko eskaintzaren aldean, oso txikia da euskarazkoa—. Horrekin lotuta, kontuan izatekoa da beste gako bat: azkartasuna bilatzen dute guraso askok, eta webgunean hasierako bertsioa erdaraz badago, hor jarraitzen dute.

- Eskaintzaren aldetik dagoen desoreka ikusita, ezinbestekoa da euskaraz badagoen eskaintza ikusgarri jartzea. Horretarako, adibidez, aztertu beharko litzateke webguneetan euskarazko bertsioak lehenestea, horrekin euskararen erabilera bultzatzeko.

## Kultura

Kontsumorik euskaldunena musikaren esparrukoa da: paretsu dabilta euskal taldeak eta erdarazkoak. Liburuetan eta ikus-entzunezkoetan, berriz, oso apala da gehienbat euskarazkoetara jotzen dutenen kopurua, %10etik azpikoa.

- Euskarazko kultur produktuetara ez jotzeko arrazoi nagusia ohitura falta da, gurasoek eurek azaldu dutenez. Liburuen kasuan, nabarmena da irakurtzeko erraztasunak baduela eragina, baina ohartzekoa da datu bat: euskaraz errazago irakurtzen dutenek ere erdarazko liburuak hartzen dituzte gehiago. Euskarazko eskaintza sustatu beharra agerian jartzen du datu horrek.
- Eskaintzaren faktorea ere oso kontuan hartzekoa da, batik bat ikus-entzunezkoetan.

## Ingelesa

Guraso euskaldunen artean ia erabat bermatuta dago euskararen transmisioa —askotan, gaztelaniarekin batera transmititzen dute—. Nabarmena da, ordea, gurasoen artean mira handia duela ingelesak, eta pixkanaka etxean lekua egiten ari dela; ez ahozko erabileran, baina bai umeen aisialdiko kontsumoan, askotan gurasoek eurek sustatuta.

- Aztertzekoa ingelesa nolako lekua ari den hartzen familien artean. Alegia, eskolan gaitasuna eskuratzeko helburuarekin batera, zer beste toki duen —adibidez, umeen marrazki bizidunetan—, eta horrek zer ondorio dituen euskarari dagokionez.

## Irudia

Euskarak nolako irudia duen guraso euskaldunen artean, badira kontuan hartzeko aldagai batzuk. Batetik, euskara batuari buruzko iritzi ezkorrak sumatu dira: «artifiziala» dela eta horrelako oharrak. Bestetik, euskara zerekin lotzen duten guraso batzuek: obligazioarekin, hezkuntzarekin eta aginduarekin lotu dute, esaterako.



- Hizkuntza moldeari dagokionez, aztertzekoa da nolako eredia zabaltzen ari den esparru publikoan; esate baterako, udalaren beraren idatzizko komunikazioan. Alegia, euskara *zuzena* ez ezik *egokia* ere erabiltzen ote den, edo gurasoen iritzi hori irakurtzeko ohiturarik ezak sortutako aurreiritzia den.
- Euskara zer baliorekin lotzen duten, aldagai garrantzitsua da hori motibazioari dagokionez. Alde horretatik zaintzekoak dira euskarari buruz nolako mezuak ematen diren, batik bat mezu horiek goitik beherakoak direnean —umeei eta gaztetxoei euskaraz egiteko agintzea, adibidez—.

### Pertzepzioa

Tolosan zenbat euskaldun dauden eta euskara gehien zer adin taldetan egiten duten, guraso euskaldun gehienek irudi egokia dute, baina aintzat hartzekoa da pertzepzio okerra dutenen multzoa: bereziki, daudenak euskaldun gutxiago daudela uste dutenen multzoa.

- Euskaldunen dentsitatea eta horri buruzko pertzepzioa inportantea da erabilerari dagokionez, euskaraz egiteko aukeran eta estres linguistikoan eragiten badu. Alde horretatik, komenigarria da euskaldunen ikusgarritasuna ziurtatzea, batik bat noizbehinkako harremana izaten den jendaurreko eremuetan —saltokietan eta horrelakoetan—.

### Informazioa

Denbora aldetik, lehenengo Euskaraldiaren erdian egin da ikerketa. Hala ere, guraso euskaldunen multzo batek ez du hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoen aditzerik —kontuan izan behar da Tolosako gurasoekin lehenago egin direla horrelako probak—. Irismen arazo bat islatzen du horrek.

- Kontuan hartzekoa da euskarari buruzko zenbat informazio eta nolako iristen zaien aita-amei, bai aurreiritzi okerrak saihesteari begira, bai euskara sustatzeko egitasmoen berri edukitzeari begira. Garrantzitsua da komunikazio bideak aztertzea.

## Kontzientzia

Euskaldunen portzentajea hazten ari da Tolosan, adin talde gazteetan kasik heldu da ezagutzaren unibertsalizazioa, baina datuek erakusten dute hori ez dela aski euskara erabiltzeko. Alde horretatik, ezinbestekoa da euskaraz egiteko motibazioa, hautua, kontzientzia. Badago kezka kontzientzia hori eraldatzen ari ote den, edo areago, ahultzen.

- Nabarmena da Tolosako bilakaera soziolinguistikoak hainbat aukera zabaldu dituela euskararen erabilerari dagokionez, eta aurrerapauso irmoagoak emateko aukera zabaldu duela. Hala ere, kontuan izan behar da urteotako aurrerabideak baduela arrisku bat: erlaxatzea, dena egina dagoela uste izatea. Bi aldeko txanpona da, hortaz: urteotako bidea nabarmendu eta aukera horiek baliatu, baina egiteko dagoena kontuan hartuta.

## Bibliografia

ALTUNA, Jaime; Hernandez, Jone M. (2018). %2,7a – Euskara, generoaz mintzo? *Bat soziolinguistika aldizkaria* 106: 115-144.

EUSKO JAURLARITZA (2013): *Ikuskerak 6 – Hedabideak*. Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA (2017): *VI. inkesta soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*. Gasteiz.

GOIKOETXEA, Garikoitz (2016): *Euskara irabazteko bidean*. Berria, Jakin, Elkar.

ORTEGA, Ane; AMORRORTU, Estibaliz; GOIRIGOLZARRI, Jone; URLA, Jacqueline (2016): *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.

ORUESAGASTI, Goizargi; ARAKISTAIN, Joana; OTAEGI, Aizpea (2014). Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena. *Bat soziolinguistika aldizkaria* 92-93: 67-86.

PUJOLAR, Joan; GONZALEZ, Isaac; FONT, Anna; MARTINEZ, Roger (2010). *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Generalitat de Catalunya.

PUJOLAR, Joan; GONZALEZ, Isaac; MARTINEZ, Roger (2017). Gazte katalanen muda linguistikoak. *Bat soziolinguistika aldizkaria* 104: 51-70.

SIADeco (2009). Irunen Familia bidezko hizkuntza transmisioa indartzeko egitasmoa. Txosten argitaragabea. Irungo Udala.

SIADeco (1994). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Txosten argitaragabea.

SUAY, Ferran; SANGINÉS, Gemma (2010): *Sortir de l'armari lingüístic*. Angle Editorial.